

ASTEKO GAIA

GARAIA,  
Arrasate  
goitik  
behera  
aldatuko  
duen  
egitasmoa

/2-3

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko urtarrilaren 12a • II. urtea • 5. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**LUIS MARI UGALDE**

*"Bakea lortzeko  
elkarrizketa  
behar da" /9*

**KIROLAK**

Futbolzaleak domekako  
Reala-Athletic  
derbiaren zain /10

**Goienka2a**

Bailarako euskara  
taldeak, sormena  
bultzatu nahian



Ibarretxe lehendakaria eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea atzo, eguena, Arrasaten egindako inaugurazioan.

SAIDA OJANGUREN

## Eibar-Gasteiz autobidearen bigarren zatia laster hasiko dute

Bergarako hegoaldea eta iparraldea lotuko dituen Eibar-Gasteiz autobideko lanak esleitu zituen Gabonetan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lanek ia 10 mila milioi pezetako aurrekontua izango dute eta 27 hilabeteen bukatuta egotea espero dute. Martxo aldera hasiko dira.

Ondartza baserritik Zaldumendiko lotunera bitarteko 4,5 kilometroko autobide zatia egingo da. Aipatzekoa da San Martzialen kilometro eta erdiko tunela egingo dela. /3

## 'Independentzia Eguna' ospatuko dute Antzuolan zapatuan

Antzuolar guztien eguna izango da zapatua. Helburu horrekin antolatu dute, behintzat, Antzuola Bergaratik banandu zela ospatzeko, 'Independentziaren Eguna'. Goizeko 10etan hasi eta egun guztian hainbat ekitaldi izango dira: txistularien kalejira, herri bazkaria, dantza saioak eta erromeria, besteak beste. Orain dela urte batzuk hasi ziren egun hau antolatzen Antzuolan, eta arrakasta handia lortu du. /4

# Unitate berria Aita Mennin

■ *Lehendakaria Arrasatera hurbildu zen inauguratzera*

■ *Mila milioi pezeta bideratu dira eraikin berria egiteko*

■ *Ospitale psikiatrikoaren zerbitzuak hobetuko dira*

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak inauguratu zuen atzo, eguena, Aita Menni Ospitalearen unitate berria. Ospitale psikiatriko-

ak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzea da unitate berriaren helburu nagusia. Horretarako, mila milioi pezeta bideratu dira

Gesalibarren lau pisuko eraikin berria egiteko. Lehengo aparkaleku zaharra zegoen tokian eraiki da 7.000 metro koadroko etxe

berria. "Gure osasun sistema garatzea eta bultzatzen jarraitzea beharrezkoa da", adierazi zuen lehendakariak ekitaldian. /4

## Haizeteak kalte ugari eragin du Elgetako inguruetan

Haizeteak kalte ugari eragin zuen joan zen astean Elgetako hainbat baserritan. Sakona baserrikoen sailean 50 pinu inguru bota zituen: asko erditik apurtu ziren eta errepidera eta Sakonakoen txabolaren gainera erori ziren. Arrotan eta Jarikotxon ere hainbat kalte eragin ditu haizeak. Bestalde, Elgeta eta Kanpanzar arteko bidera ere jausi ziren pinu batzuk eta bidea moztu behar izan zuten. /4



Sakona baserriko Luzia Arantzabal haizeak hondatutako pinudian.

IBAN ARANTZABAL

EDIFICIO

**LABEKOA**

*Ondo jateko beste modu bat*

Santa Lucia auzoa, z/g  
20709 EZKIO-ITXASO (Gipuzkoa)  
☎ 943 72 25 52 ☎ 943 72 43 81  
@baminar@teletel.es

# Garaia egit

## Arrasate eta inguruak goitik behera ald

MARIJO DEOGRACIAS

Urtebete eta hilabete igaro da Garaia proiektua aurkeztu zutenetik. 1999ko abenduaren 13an aurkeztu zuten Gipuzkoako Diputazioan MCCko eta MUko ordezkariak. Unibertsitatea, enpresen ikerketa zentroak eta unibertsitatea eta enpresen arteko unibertsitate-institutuak batuko ditu Garaia, eta hori betetzeko urte osoa daramate lanean Mondragon Unibertsitateak, MCCk eta baita Arrasateko Udalak ere.

Izan ere, nahiz eta proiektua aurreko biena izan, lurralde antolamenduari dagokion zatian, behintzat, Arrasateko Udalak zeresana dauka. Oraingoan, Garaia proiektuaren kokagune zehatza zein izango den erabaki du: gaur egun Trefasa dagoen enpresan hasi eta Gau-Txori taberna inguruetatik Kallamendi baserria eta atzeko gunea hartuko du Garaia. Guztira, 50 hektarea dituen lursaila, hain justu. Ondorioz, hantxe lurrak dituztenek euren jabetzak galduko dituzte. Hasiera batean, bost baserriak jabeek eta hantxe hortuak dituztenek ez dute begi onez ikusi euren jabetzak galdu behar izana. Hala ere, udala pausoak ematen ari da Garaia proiektuari beharrezkoa duen lurra gordetzeko.

### Ekologistak aurka

Garaia ez da, ez, edozelako teknologigunea izango. Jabier Retegik berak behin baino gehiagotan azaldu duenez, "berdeguneak izango ditu eta herriarekin bat egingo du. Oinezkoendako pasabideak egingo dira eta Arrasate osoa zeharkatuko duen Gernika zumardiarekin bat egingo du. Gainera, Olandixorekin lotura egingo zaio eta herriarendako parke bat izango da".

Baina, ekologistek ez dute hori horren argi. Ekologistak Martxan taldearen arabera, "proiektu hori egiteko urbanizagarriak ez diren lursailak urbanizagarri bihurtuko dituzte, eta lursail natural eta erdinatural asko betiko desagertuko dira. Datozen belaunaldiendako Uribarri ez da baserri-auzoa izango, ezta hain industrializatuta dagoen Mondragoeren birika ere". Hori dela eta, garapen-ere-

**"Oinezkoendako pasabideak egingo dira; Olandixorekin lotuko da eta herriarendako parke bat izango da"**

**"Lehenik eta behin, baserri inguruetan egin nahi diren proiektuak nork erabaki ditzakeen argitu beharko litzateke"**


**"Pare bat urte, behintzat, pasako dira gure lurretan ezer egin aurretik"**

**"100 etxetik gora eraikiko lirateke lur horietan. Dena dela, asmoa badagoen arren, oraindik ez dago ezer erabakita"**

du horren aurka egiten dute, eta "industria, zerbitzuak eta nekazaritza modu orekatuan uztartzen" saiatzen dira. Talde ekologista horren arabera, beharrezkoa litzateke, Mondragoan ere, "herri bezala egituratuko gaituen lurralde antolamendua. Izan ere, presakoa da landa inguruak planifikatzea, industriagunean planifikatzen diren bezala". Ekologistek ez dute onartzen Jabier Retegik azalduko Garaia berdeguneen proiektua: "Landa-inguruek elikagaiak segurtatzeaz gain, aisialdirako ere izan behar dute, eta baita ere inguruotan hain gutxietsita dauden baserriko kulturaren ezaugarriak gordetzeko". Horren aurrean, beharrezkoa ikusten dute eztabaida zabala egitea, "lehenik eta behin, baserri inguruetan egin nahi diren proiektuak nork erabaki ditzakeen argitzeko".

### AZKEN DATUAK

Garaiaz jakin genuen azkena zera izan zen: Garaia Berrikuntza



### MCC

Gaur egun, Olandixon du MCCk egoitza nagusia. Horrez gain, Ikerlan ikerketa zentroa ere malda horretan dago.

### Oinezkoendako bideak

Mendi hori Garaia parkearekin lotuko litzateke eta oinezkoendako bideak egingo lirateke aisialdirako.

### Tunela

Olandixoko malda zeharkatuko lukeen tunelak Garagartzarako zirkulazioa arinduko luke.

Gunea kudeatzeko elkarteak eratu zela eta 3.300 milioi pezeta izango dituela egitasmoari ekiteko. Baina, lanak hasi aurretik, Uribarriko lursailen jabetzak dituztenekin akordioa egin beharko du. Izan ere, Uribarri auzoko 492.150 metro koadro gordeko ditu Arrasateko Udalak (19 bat lursail), zortzi urte baino lehenedo desjabetu beharrekoak.

Horrek esan nahi du Garagartzara bidean dagoen Gau-Txori taberna inguruetatik hasi eta Eguzkitza baserrirainoko lursail guztiak erabiliko direla, hain gune teknologiko bat egiteko. Horrekin, Markuleteko industrialdearekin eta Fagorren handitzearekin, esan daiteke, beraz, Uribarri auzoa desagertu egingo dela baserri-auzo moduan. Horren

aurrean, Uribarriko baserriak ez daude ados. Jabeetako batek azaldu digunez, "baserriak bakoitza bere aldetik joan arren, batek baino gehiagok erabaki du abokatuekin harremanetan jartzeta. Pare bat urte, behintzat, pasako dira gure lurretan ezer egin aurretik".

Garaia onorio zuzeneta-ko bat, hortaz, Uribarriko base-

## Hainbat datu

• Aurrez ikusitako inbertsioa	7.700 milioi pezeta
• 4.795 milioi	Lursailak egiteko + kalteak ordaintzeko + hirigintza lanetarako
• 2.912	Eraikinak egiteko
• Garaia Berrikuntza Gunea kudeatzeko taldeak	3.300 milioi pezeta
• 990 milioi pezeta	Gasteizko Gobernuak jarriko ditu
• 990 milioi pezeta	Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu
• 1.320 milioi pezeta	MCCk jarriko ditu

# asmoa

o dituen proiektua



MARIBIO DEBAGOIENS

## Markulete

Markuleteko industrialdearekin lotuko litzateke proiektu guztia.

## Garaia

Trefasa enpresaren lurretatik hasi eta Eguzkitza base-rrirainoko lursail guztiak erabiliko dira Garaia proiektua egiteko.

## Etxebizitza gehiago

Atxa zerrategiaren lurretan ere etxebizitzak egiteko asmoa du Arrasateko Udalak.

rri-auzoa desagertzea izango da. Aldi berean, 50 hektarea horietan 1.500 goi lanpostu sortuko dira. Baina, horrekin batera, Arrasateko herriak bestelako aldaketarik ere izango du: hasteko, Mondragoen biziko direnen kopurua igo egingo da, baina hau bailara osoan gertatuko dela uste dute Garaiaiko arduradunek. Izan ere, Jabier Retegiren esanetan, hau ez da izango sakabanatutako herrien bailara, baizik eta bailara oso bat; eta hori birmoldatu behar da hiri berri bezala ikusteko, kontuan izanda unibertsitate indartsua dagoela hemen.

## MANKOMUNITATEA

Hala ere, horrek baino gehiago, Mondragoeko esparru mugatuak kezkatzen du alkatea. Beraren ustez, Mondragoek dituen hazkunderako aukera fisiko-geografikoak bete egiten dira proiektu horrekin. Hala ere, Erguin auzoaren jarraipenaz gain, Atxa zerrategiaren lurretan beste hainbat etxebizitza egiteko asmoa ere

badute. 100 etxetik gora eraikiko lirateke lur horietan. Dena dela, asmoa badagoen arren, oraindik «ez dago ezer erabakita», Xabier Zubizarreta Mondragoeko alkateak azaldu digunez.

## PRODUKZIO MODUEN ALDAKETA

Baina, horrenbeste ikerketa zentrorren sorrerek, eta jeneralean gizartean ematen ari diren produkzio moduen aldaketek, Debagoienean ere eragingo dute. «Lan asko ezin izango dira hemen garatu; Hego Amerikara edo beste herri batzuetara eramane behar dira. Hemen ezin dugu lehiatu daukagun kostuekin eta daukagun bizimoduarekin, baina beste enplegu batzuk sortuko dira: goi mailako enpleguak, eta hori guztiz lotuta dago gure heziketarekin eta baita proiektu berrieke ere; azken batean, horrelako ikerketa proiektuak lantzeko ikertzaileak behar dira eta ikertzaileak prestatu egin behar dira (maila handikoak); horrek gizarte aurreratu bat ekarriko du

hurrengo urteotan. Hori da gizartearen erronka: gizarte aurreratu sortzea». Jabier Retegik horrela ikusten du Debagoiena datozen urteotan.

Oraindik ez da proiektua jendaurrean aurkeztu. Ez, behintzat, izango duen itxurari dagokion proiektua. Hala ere, datu asko badakizkigu: Uribarriko 50 hektarea horietan 500 langile izango dituzten 20 ikerketa zentro, fakultateak eta unibertsitate institutuak, jarduera teknologikoak, aholkularitza bulegoak eta ingeniari elkarteak eta enpresa sustapenerako elkarteak egingo dira. Proiektua amaitutakoan, ikerketa zentro berriek eta gaur egungoek 200 langile gehiago izango dituzte; unibertsitateak beste horrenbeste, eta aholkularitza bulegoek eta ingeniari elkarteek, 150 langile gehiago. Gainera, doktoretza proiektuetarako 200 laguneko taldea erabiliko da. Mondragon Unibertsitateak 1.700-2.000 ikasle gehiago izango ditu. Guztira, ia 5.000 ikasle.

## Bailaran, labur

### ERREPIDEAK

#### Eibar-Gasteiz autobidearen bigarren zatia laster hasiko dute

Bergarako hegoaldea eta iparraldea lotuko dituen Eibar-Gasteiz autobideko lanak esleitu berri ditu Gipuzkoako Diputazioak. Ia 10 mila milioi pezetako aurrekontua izango dute lanek eta 27 hilabetean egin beharko dira. Obrak udaberrian hasita espero da. 4,5 kilometroko autobide zatia izango da: Ondartza baseritik Zaldumendiko lotunera bitartekoa. Tarte honetan Ipiñarriko zubi-bidea, Angiozar bailara zeharkatuko duen lubeta eta San Martzialgo tunela eraikiko dira. /ENEKO AZKARATE

### GOIENA

#### Leintzeko udalekin hitzarmenak sinatu ditu Goiena kooperatibak

Eskoriatzako eta Gatzagako udalek eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak hitzarmenak sinatu zituzten joan zen astean. Dagoeneko Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagan sinatu dira hitzarmenak. Antzuolan egunotan sinatuko da eta Arrasaten ARKOrekin egin zen iaz hitzarmena. Elgeta, Bergara eta Oñatiko udalek ez dute oraindik erabakirik hartu. Hitzarmenak GOITB eta Goienkaria bultzatzeko egin dira. /GORKA ETXABE

### UDALBILTZA

#### Debagoieneko udalek 10 milioi bideratuko dituzte Udalbiltzarako

Hego Euskal Herrian 68 udalek bideratu dute orain arte Udalbiltzarentzako 73 milioiko diru laguntza. Debagoieneko lau udalek eman dute dirua. Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako udalek 10 milioi pezetan eman dizkiote Udalbiltzari. Arrasatek 3.750.000 pezetan; Bergarak, 2.500.000; Oñatik, 2.500.000; eta Aretxabaletak, 1.250.000. /G. E.

### EKONOMIA

#### Euskadiko Kutxak 29 bulego berri zabalduko ditu datozen lau urteotan

Euskadiko Kutxak 29 bulego berri irekiko ditu datozen lau urteotan, Zaragozan, Salamancan eta Zamorran, besteak beste. Aurten 10 bulego zabalduko ditu Zaragozan eta lehenengo aldiz Salamanca eta Zamorara ere iritsiko da. /SAIOA OJANGUREN

### LANA

#### Fagor Ederlanen hildakoagatik protesta egin dute langileak

ELA, LAB eta ESK sindikatuek bailarako lantokietan segurtasun neurriak ez direla betetzen salatu zuten astelehenean. Fagor Ederlanen eginiko kale bilkuran bailarako ordezkarik ez zirela langileak eta kooperatibako langileak elkartu ziren. Pasa den astean Ederlanen lan-istripuan hildako Agustin Zugasti langilearen alarguna eta seme-alabek ere egon ziren. Guztiek lantoki hantxe segurtasun eza salatu nahi izan zuten. Izan ere, bailaran, urte baten buruan, sei langile hil dira. /G.E.



BERGARA

LIBURUTEGIA

## Udal Liburutegiak ordutegia zabaldu du, erabiltzaileek hala eskatuta

*Horretarako, langile berria kontratatuko dute eta 9etan zabalduko da*


MONIKA BELASTEGI

Ordubetez luzatu du ordutegia Udal Liburutegiak. Bestalde, uztailean ere astelehen eta eguen arratsalde irekita egongo da, orain arte ez bezala.

Erabiltzaileek hala eskatuta, eta horien beharrei erantzuteko, hartu da erabaki hori. Abendua arte goizeko 10etan irekitzen zituen ateak, eta horrela jardun du hamar urtean. Hala ere, urtariletik aurrera goizeko 9etan irekitzen hasi dira; ordubete luzatu da, beraz, liburutegiaren ordutegia.

Ondorioz, hauxe izango da ordutegi berria: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

Bestalde, uda aldean jendeak irakurtzeko denbora hartzen duela kontuan izanda, maileguan liburuak uzteko aukera zabaltea ere erabaki dute liburutegiko arduradunek. Uztailean, orain arte, goizez bakarrik egon da irekita; aurten, arratsalde ere ire-



Gazteek, batez ere, asko erabiltzen dute liburutegia.

kiko da astelehen eta eguenetan. Uztaileko ordutegia, hortaz, honakoa izango da: 08:00etatik 13:30era, eta astelehen eta eguenetan, 16:00etatik 20:00etara ere. Ordutegia zabalteak hiru urtez jardun osorako hirugarren langilea kontratatzea ekarri du. Deialdia amaituta, egunotan lanposturako probak egiten ari dira.

### ZERBITZU AKTIBOA

Egun, liburutegiak 2.000 bazkide inguru ditu, eta iaz, batez beste, 725 mailegu egin ziren hilabetean. Mila Agirrezabal liburutegiko arduradunaren arabera, liburutegiko zerbitzu aktiboa izatea nahi dute: hau da, gero eta erabiltzaile gehiago izatea. Horretarako zabaldu dute ordutegia.

ANTZUOLA

OSPAKIZUNA

## 'Independentzia Eguna' ospatuko da zapatuan

*1629an lortu zuen Bergaratik banatzea*

AINTZANE IRIZAR

Zapatuan antzuolar guztien eguna izango da; hori da, behintzat, antolatzaileek lortu nahi dutena, antzuolar guztien jaieguna izatea. Antzuolak duela 331 urte lortu zuen Bergaratik banatzea, 1629. urteko abenduaren 12an, hain zuzen ere. Hala ere, abenduan frontoia ezin daitekeenez erabili pilota partiduak jokatzeko direlako, urtarrilera atzeratu dute. Urteurren hau ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, urtero bezala. Goizeko 10etan hasiko dira ospakizunekin. Ordu horretan txistulariek kalejira egingo dute. Eguerdian, 12:30ean, herri poteoa egingo da 14:00ak aldera arte, bazkari ordu arte, hain justu. Frontoian izango da herri bazkaria, eta txartelak ohiko tokietan daude salgai: gaztetxean eta Larrea, Surpe eta Mox tabernetan, alegia.

Bazkalostean ere ez da asperetzeko aukerarik izango. Besteak beste, dantzariak, trikitalariak eta txaranga izango dira. Herriko hainbat koadrilak ere antolatu dituzte arratsaldea girotzeko ekitaldiak. Xabier Arregi antzuolarra gaita joko du. Gauean, berriz, erromeria egongo da gaztetxean. Antolatzaileek baserriar jantzita joatea eskatzen diete herritar guztiei.

### MURAL LEHIAKETA, HUTSIK

Antzuolako Udaletzeko eskailearen aurreko horman fresko bat egin nahi du udalak. Horretarako, lehiaketa deitu zuen, eta zapi proposamen aurkeztu ziren. Baina, horiek ikusi eta aztertu ondoren, epaimahaikideek sariarik ez ematea erabaki dute, batek berak ere ez ditu eta baldintzak betetzen. Baldintza berriak presatu eta, laster, berrituko dute lehiaketa.

ELGETA

HAIZETEA

## Haize zurrumbiloez kalte handiak eragin dituzte

*Aurreko asteko haizeteen ondorioz jausitako pinu batek auto bat harrapatu zuen azpian*

IBAN ARANTZABAL

Barikuan, eguerdiko hamabiak inguruan, izan zen haizeterik gogorrena Elgeta aldean. Ordu erdi geroago, Sakona baserriko Luzia Arantzabalek kontatu digun moduan, berak 80 urtean ikusi ez duen sarraskia eragin zuen haizeak. Sakona baserrikoen sailean 50 pinu inguru bota ditu, asko erditik apurtu dira eta kaminora erori zirenez gain, beraien ardi txabolaren gainera ere egin dute pinuek. 45 urte inguru zituzten pinuok eta saltzeko asmotan zebiltzan. Orain, halabeharrez saldu beharko dituzte eta apurtuta egotean asko

merkatuko da prezioa. Euren basoan kalteak eragiteaz gain, erdiko etxe ostean ere jausi dira zortziren bat pinu. Arrotan luze-roak apurtu zaizkie eta Jarikotxon teilatua altxatu du haizeak.

Jausitako pinuetako batzuk bidera egin zuten eta denbora tarte batean Elgeta eta Kanpanzar arteko bidea itxita egon zen. Pinuetako bat Manuel eta Pedro Sagastaren auto gainera jausi zen: "Betiko bidea egiten ari gine-la pinua gure gainera jausi behar zela eta, atzera egin genuen pinu bat. Pinuak, hala ere, autoaren aurreko aldera erori zitzaizgun. Zorte handia izan dugu, apartekorik ez zaigu gertatu eta".



Sakona baserriko Luzia Arantzabal.

OÑATI

TURISMOA

**Ikerne Altube**/Turismo eta Garapen Agentziako gerentea

*"Oñatik baditu turismo baliabideak; gure lana horiek indartzea da"*

AINTZANE IRIZAR

Oñatiko Turismo eta Garapenerako Agentziako gerente berria Ikerne Altube arrasatearra da. ARKOk gerente ere izandakoa da duela bizi-pahiru urte arte.

Noiz sortu zen Oñatiko Turismo eta Garapen Agentzia?

Duela hiru bat urte Oñatiko Plan Estrategikoa egin zen. Bertan turismoa indartu behar zela ikusi zen, eta horretarako, agentzia hau sortu zuen 1998an udalak. Baina, ez du turismo zerbitzua soilik eskaintzen, garapenerako agentzia ere bada. Horrek esan nahi du beharrak eta aukerak aztertu eta proiektu konkretuak garatzea ere badela gure lana.

Besteak beste, Arrikruztzeko proiektua garatzeaz arduratzen da agentzia hau. Zelan dago proiektu hau?



Esku artean daukagun lanik garrantzitsuenak Arrikruztzeko proiektua da. Zeresan eta iritzi ugari sortu ditu kobazuloaren proiektuak, eta horregatik garatu da garatu den bezala; hau da, jarraipen batzorde bat dago eta talde eta agente ezberdinek osatzen dute batzorde hori. LKS arduratu da proiektuaz, eta batzordeak

onartu ditu, edo ez, aurkeztutako proposamen guztiak. Lan handia eman du, baina dagoneko ia guztia zehaztuta eta adostuta dago, eta bizpahiru hilabete barru hasiko dira lanak.

Oñati herri turistiko delako esan daiteke. Zein da, alde horretatik, zuen helburua?

Oñatik baditu turismoa garatzeko baliabideak, eta gure lana, horiek erabiliaz, turismoa indartzea izan behar da. Arantzazun turismo eskari handia dago. Oñatik ere, bere ondare artistiko-historikoagatik, turista askoren bisita jasotzen du. Baina, Arantzazura soilik joaten den jendea herriera etortzeko arrazoiak ematea garrantzitsua da, gure ustez, horretarako estrategiak garatuz. Horrek, gainera, herriko merkataritza eta ostalaritzari ere onura handia ekarriko lioke.

**ARRASATE** AITA MENNI

# Egonaldi Ertainetarako Unitate berria zabaldu du Aita Mennik

*Mila milioi kostatu da eta Ibarretxe lehendakariak inauguratu du*

UBANE MADERA

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria Mondragoen izan zen atzo Aita Menni Ospitalearen eraikin berri bat inauguratzen: Egonaldi Ertainetarako Unitate berria, hain zuzen. Lehendakariarekin batera, Gizartekintzako diputatua, Osasun sailburua, Mondragoeko alkatea, Jesusen Bihotzaren kongregazioaren ordezkaria eta Aita Menni ospitaleko zuzendari nagusia izan ziren, besteak beste.



Eguenean egin zen inaugurazio ekitaldiko irudi bat. SAIDA OJANGUREN

**GABEZIAK BETETZEKO**

Orain dela bi urte eta erdi hasi ziren unitate berri horren lanak. Baina, egonaldi ertainen zerbitzua 1992. urtean hasi zen eskaintzen Aita Menni ospitalean.

Zerbitzu horren helburua da bestelako ospitale psikiatrikoetan eskaintzen den zerbitzua hobetzea. Hain justu, egonaldi luzea behar ez dutenen buruko gaixoei jeneralean eskaintzen zaiena baino egonaldi luzeagoa eskaintzea.

Aita Menniren unitateak hila-bete batetik hasi eta gehienez jota urte baterako egonaldia

eskaintzen du. Era horretan, gaixoei tratamendu trinkoagoa jasotzeko aukera dute. Horrez gain, atzo inauguratu zen unitate berrian zerbitzu berri bat eskaintzeko asmoa ere badago: hilabete baino gutxiagoko egonaldiak (astebete edo bi astekoak, esaterako).

**MILA MILIOI**

Zerbitzua hobetzeko asmoarekin, mila milioi pezetako inbertsioa egin eta beste eraikin bat

finantzatu da. Lau pisuko eraikina da Gesalibar auzoan egin dutena, lehengo aparkaleku zaharra aprobetxatuz. Guztira, 7.000 metro koadro pasatxo ditu. Orain arte baino leku zabalagoa eskaintzeaz gain, hango zerbitzuak ere hobekiak izango dira. Eguneroko bizimoduari egokitu, eguneroko beharrei aurre egiteko zerbitzu guztiak izango ditu: jangela, aisialdirako guneak, profesionalendako gune bereziak...

**ESKORIATZA** UDAL AURREKONTUAK

# 2001erako aurrekontuak onartu ziren XX. mendeko azkenengo osoko bilkuran

INIGO BIAIN

Joan den abenduaren 28an osoko bilkura egin zen Eskoriatza-ko Udalean. Gai serioegiak lantzeko egunik aiposena ez bazen ere, aurtengo aurrekontuak zeuden mahai gainean eztabaidagai, besteak beste.

Aurrekontuak onartu baziren ere, bi gaik desadostasun izpi bat sortu zuten: alde batetik, Axtroki elkartearen eta Ze Barri? hilabetekariaren laguntzak, eta bestetik, Almeni ematekoa. Lehenengo bi kasuetan ez zen onartu eskatzen zuten igoera, nahiz eta hilabetekariaren kasuan laguntza ekonomikoa zerbait igoko den.

Almeneko diru laguntzek ere eman zuten zeresana; izan ere, Ezker Batuko Javier Zugastik esan zuen Almen hitzartutako ikastetxea izanik, beste iturri batzuetatik ere jasotzen dituela laguntza ekonomikoak. Dena dela, eta aurrekontuak onartu baziren

ere, azken gai hau mahai gainean gelditu zen, eta diru laguntzen kontua aurrerago eztabaidatuko da.

**ZIGOR-ESPEDIENTEA GARBIKETA ENPRESARI**

Osoko bilkuran beste gai bat ere landu zen: GSM Medio Ambiente SA garbiketa enpresari zigor-espedita irekitzea, hain zuzen. Enpresa horrek kontratuan esandakoa betetzen ez duela (ez da garbiketaren maiztasuna betetzen, Eskoriatzako gune batzuk zaindu barik daude, Intxaurtxueta auzoa eta Almeneraino doan pasealekua, esate baterako, ...)

**Zertzelada**

**GMSM garbiketa enpresari zigor-espedita irekitzea erabaki zuten osoko bilkurak, enpresa horrek kontratuan esandakoa betetzen ez duela eta.**

esan zuten osoko bilkuran, eta hau akats larri bezala har daitekeenez, espedita irekitzea erabaki zuten.

GMSMri 15 egun eman dizkiote beharrezko ikusten dituen alegazioak aurkezteko, baina ezinbestekotzat ikusten da zerbitzuen hobetzea, bestela, udalak kontratua hautsi dezake eta.

**ARAMAIO** AUZIA

# El Limitado lursailaren arazoa auzitegira eroango du udalak

*Orain dela 500 urteko kontua, konpondu barik*

UBANE MADERA

Aramaioko Udalak epaitegietara joko du El Limitado izeneko lursailaren inguruko auziari konponbidea emateko. Auzi horretan sartuta dagoen beste aldeak, Otxandio Udalak, ez du Arartekoak esandakoa indarrean jarri.

Orain dela 500 urteko arazoa da El Limitadore inguruan sortutakoa. Aramaio eta Otxandio artean kokatuta dagoen ia 600 hektareako lursail horren jabetza da arazoaren sorburua. Aramaio Udalak berea dela esaten du. Otxandioak, berriz, bizkaitarra dela. Arazo hau konpontzen ez zela ikusita, Arartekoaren bitartekaritza onartu zuten bi aldeek eta Arartekoak El Limitado erdibana egitea proposatu zuen. Orduetik hona urte eta erdi pasatu da. Aramaioko Udala prest dago Arartekoaren esana betetzeko. Otxandioak, bestalde, erabakia betetzeko pausok ematen dabil.

Udalak beste bide batzuk aztertea erabaki du. Atzera egin eta 1911. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabaki bat indarrean jartzeko eskatuko du auzitegietan.

Joan den mende hasieran, Gipuzkoako Diputazioak bete zuten, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien onarpenez, arazo horretan bitartekaritza lana. Gipuzkoako Diputazioak erabaki zuenez, El Limitado Aramaio lursaila da. Eta hori betearazteko lege bat ezarri zuen, baina lege hori ez zen bete. Beraz, indarrean jartzeko eskatuko du Aramaio.

**OTXANDIOKO UDALAK DENBORA ESKATU DU**

Edozelan ere, Otxandioko Udalak negoziatzea nahi izanez gero, ate hori zabalik lagako duela ere iragarri du Aramaio Udalak. Otxandioko alkateak arazoa konpontzeko lanean badabilela adierazi dio Goienkariari, baina arazo honen konponbidea Aramaio Udalarentzat baino zailagoa ei da Otxandiokoarentzat.

**ARETXABALETA** OBRAK

# Errekaren ezker aldearen tarte bat apirilera bukatuta egongo da

*Momentuz, kirol etxeko zubitik Errotabarriko zubiraino egingo da*

MIRARI ALTUBE

Aretxabaleako kirol etxe parean, Deba errekararen ezker aldean, pasealekua egiteko lanak hasi ziren joan den astean. Kirol etxeko zubitik hasi eta Errotabarri etxe inguruan dagoen zubiraino joango da pasealeku hau.

Errekako ezker aldeko ibiltokiaren egitasmoa aspaldiko kontua da, Markole auzoa egin zenean horrela hitzartu zuen eta udalak Amaral enpresa eraikitzailearekin. Denborak aurrera egin badu ere, azkenean hasi dira lanak, eta apiril ingururako amaituta egotea espero dute. 22 milioiko aurrekontua duen ibiltokiak hiru metroko zabalera izango du eta zuhaitz eta eserlekuekin osatuko da.

**ZORTZI-HAMAR BAT URTE GUZTIA AMAITZEKO**

Deba errekararen alde biak pasealeku bidez txukuntzeko asmoa ez da gaurko kontua. Eskumako



Hiruzpalau hilabeteren buruan Deba errekararen alde bietan paseatu ahal izango da.

alde erabat osatua dago, eta ezker aldean ere tarte bat eginda dago, Belorrieta auzoan, hain zuzen. Helburua bi ibiltokiak Errotabarri hasi eta Lausitta kaleraino egitea da. Lanak, ordea, luze joango dira, zortzi-hamar bat urte beharko dira eta ezker aldeko bukatuta ikusteko.

Kirol etxearen eta pasealekuaren artean, bestalde, berdegune zabala dago. Askoren ahotan entzun da kanpoko igerilekua egiteko leku aproposa izango litzatekeela, baina udalak dagoenetan uztea erabaki du, umeek baloia-ekin jolastu, gazteak etzanda egon edo paseatzeko.

## Zabalik

DIEGO  
MARTIARTU


nireaman-  
drie@axerikue.com

**B**izi gaituen mundu honen programatik ihes egittie gero eta gatxague dala jakituko, ez dau *Marca* leiru biherrik. Danok gaz Matrix-en sarietan katiante. *Matrix*-ek automata egitten gaittu, errobot, Joxe Mari Aznar lakotzeko *sunormal*. Juanitoren baserriko tomatiek, gorriñiek hartute egonda be, *Matrix*-etik askatu nindduten fan daneko udan. Juanitoneko tomatiek bizimiñan sinbolue die niretako, mailatute, gorriñiek hartute edo oso osorik egon. Orokorrien, ez dot telebisinuen pelotarik ikusten, baiñe Goñik jokaketan badau, aibadios!, kieto ETB-1 kataien. Mikel Goñi pelotarixek odola sutan jarri eta bihotzien atximurke egitten dusta. Haren indderra, sotamanue, hankapetik ezkeraz, ieuuuuup... txapapera! Kaka morralien, gaur be gaupasan ibillite dator! Mutil hau ez da bape zainketan, holan ez dau karrerarik egingo! Hori ez dala profesionala izetie, kauenlaordiga! Jainkuen Olinpotik inpernure *descensus*-e. Esanak esan, niri behintzet odola irakitten jarten dust morroso parrandero naparrak, eta hori ez da gutxi, ez horixe. Akordura etorri jat oin lau berba erreskaran esateko kapaz ez zan korrikalari ha: Ben Johnson, lasterraldixetara tranpa egindde faten zana, ehun metroko errekor guztixek txikittu euena. Eta Maradona bera (Maradona-na-na-na-na-na produxions), kokainaz ipurtzuloraino golak sartzen. *Matrix*-ek ez dittu sekule holakuek onartuko, ezta Juanitoneko tomatiek be (etorriko die transgenikuek Aramaixoko ortuetara be; egon-egon, Ixiar Oregaren "belarrixei" begire!).

## Gutunak

Ahalik eta iritzia gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Arozkale

**O**rain dala aste batzuk jakin neuen Arrasateko Udalak kale batzuen izenak aldatu edo egokitu egin zituela, tartien *Arimazubi* plaza (lehen *Arimazuri*). Eta poztu egin nintzen, egixe esateko. Zuzentasun eta egokitasun aldera jo biher dogu, duda barik.

Gaur dakardan kontue ez dala hain erreza, baine eztabaida apurtxo bat sortuteko ez bada be, hemen agerketie erabagi dot.

Bueno, gauzak biher dan moduen esateko, honen gainien lehenago be eskribidute nago *Arrasate Pressen*, oraintxe zortzi urte (*Ferrerias, arotzak eta zurginak*, 174. zenb., 1992-12-18). Eta orduen esandakuek gogortuko ditut. Orduen, zer? Ba, hauxe: *Ferrerias* kaliaren antxineko izena *Arozkale* dala, eta nik ez neukela ningunorik eukiko kale horri izena aldaketako.

Gasteizen ez dakit zuzen jokatu geuen, baine parte zaharreko betiko kale-izenei (*Cuchilleria, Pintoreria, Correria...*) euskal ordainek (*Aiztogile kalea, Pintore kalea, Hedegile kalea...*) emun gutzien, eta Gasteizko Udalak orain urte bi edo ofizialki onartu zituen. Eta Gasteizko kasuen, gainera, ez euen euskal lekukotasunik.

Arrasaten, ostera, Erdi Aruen *Arozkale*-ren lekukotasun ugari dogu. Ikustie besterik ez dago 2000ko udan Arrasateko Udalak argitaratu euen *Las 'Memorias' de Esteban de Garibay y Zamalloa* liburu ederra (1516ko kontuen gainien, 213. orrialdien: "... se quemo la calle de *Arozkale*, que en esta lengua significa lo mesmo que en la caste-

llana "calle de herreros"..."). Kontuen hartu guretako gaur *arotz* berbiek "carpintero" esan gure badau be, lehenago "herrero" esangurie euki dauela (esangura bera dauko Mikel Laboak kantetan dauen *Ituringo arotza, Erramun Joakin* abestikuek be. Gaur egun, sortaldien ebalten daue).

Ez da kontue, orduen, lekukotasun faltie. Bestelako arazoiek izen leikie, eta nik ez dot esango errespetagarrixe ez direnik.

Orain dala zortzi urte hauxe esaten neuen: "Badakit *Ferrerias* izenak historia luzea duela (eta agian bere xarma ere izango du izen honek) eta gatxa dela jendearen ohiturak aldatzea, baina inork ez dezala pentsa *Arozkale* leku-izena burubero baten asmakizuna denik, lehenean sustraiak dituen toponimo polit eta jatorra baizik. Bakoitzari berea...".

Pozik irakurriko (edo entzungo) neuke zeure eritzixe honen gainien eta baite, jakine, *Arozkale* dala-eta.

TXIPI ORMAETXEA  
Gasteiz

## Aita Villasante

**G**oienkarian Mari Kontxi Garaiondok idatzitako "Hausnarketa" izenburuko gutuna irakurri dot eta erantzuna merezi dau. Barkatuko dostazu, Mari Kontxi, hau kafetxo bat hartzen dihardugun bitartean ez esatea, baiña zuk aukeratutako bide bera erabili biher dot nik be.

Lehenengo harritu nabena hau izan da: zuk Aita Villasante orain arte ez ezagutzea, oso arraroa egin jat. Nik, zorionez, aspalditik ezagutzen neban, euskal giroan bizi garen guztiok bezala, edo hobeto esanda, bera baiño gehixago, ezagutzen dotena berak egindako lan ikaragarri horren zatitxo bat besterik ez da, eta bere heriotzak benetako tristuria sortu zoztan barru-barruan.

Baiña, ez diot honi heldu nahi, eta hau besterik ez dotsut esan nahi: berak zeukan moduko urte osorako habitua eta sandaliak jantzi, laga beste gutzia, beste gutzia, ulertzen dozu? Eta probaizu sasoi batian, gero esango dostazu hori pobrezian biziitza dan ala ez dan. Ah!, orain dala gutxi 'paga estria' kobratu dot eta biher, seguruenik, Donostiara juango naiz etxeko autoan, txakolin pare bat hartu, alde zaharreko jatetxeren batian bazkaldu, Kutzako txartelarekin erosketa piloa egin eta Bergarara bueltatuko naiz iluntzian -Donostian etxebizitarik ez dauka-

dalako, beste batzuk bezala-, eta seguru nago Aita Villasante, nik hau egiten dihardudan bitartian (edo zuk), bere 'idazmahai erosoan bere argi natural, artifizial' eta guzti, euskararen aldeko lanen batian sartuta egongo zala, bere jakinduriaren zatiren bat eus-kaltzaleokin zelabait konpartitzeko, eta pobrezian eta austeritatan, oso gertutik ezagutzen zeben bere adiskide guztiek esaten daben moduan.

Kontuz ibilli biher da ezagutzen ez dogunari buruz berba egiterakuan. Hala be, agur bero bat, eta urte berri oparoa.

ARANTZAZU NARBAIZA  
Bergara

## Presoen eskubideen alde gose greban

**E**uskal preso eta errefuxiatuei elkartasuna adierazteko milaka ekimen egiten da urteko egun guztietan. Hale ere, egon badaude data berezi batzuk non oso modu sakonean sentitzen den senide presoaren hutsunea; Gabonetako mahaian aulki hutsa, seme-anaia-senarra edo aita-presoa bisitatze 1.000 Km bidaiatu behar izatea, ....

Egoera latz honen aurrean, Arrasaten, Euskal Herriko herri eta auzo guztietan bezala, ekimen bat burutu da Gabonetan: Arrasateko hamaika herritar abenduaren 26tik 30era baraualdian egon dira, Uarkapeko frontoian. Ekimen honen helburuak argiak izan dira: alde batetik, presoen oinarritzko giza eskubideen defentsan, kolektibo osoaren euskal herriratzea, kondenaren hiru laurdenak beteta dauzkaten presoak kaleratzea eta gaixotasun sendaezinak dituzten presoak aske uztea eskatzea. Arrasateko 12 presoetik hiru bakarrik daude Euskal Herrian; gainera, horietatik bostek- Jon Agirre, J.M. Zabarte, Pedro Guridi, Enrike Letona eta Gabriel Urizar, alegia- kalean egon beharko lukete kondenaren hiru laurdenak beteta dituztelako. Bestalde, presoen kolektiboaren aldarrikapen politikoen aldeko mezua gizarteratzea dute helburu. Presoak bahitu politikoak diren heinean, hau eskatzen dute: Euskal Herrian abian den prozesuan agente politiko bezala parte hartzeko eskubideak, eta ezinbestean preso politikoen estatua errekonozitzea.

ARRASATEKO GOSE GREBALARIAK  
Arrasate

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

**H**eldu dira urtarrileko beherapenak; hau amama! Orain goan, Gabonetatik geratu zaizkigun apurrak gastatuko ditugu, erosketak egitea eta hiribu-

ruetara arratsalde-pasajoatea erri-to bihurtu baita, batez ere beherapenetan. Kontuak kontu, kontsumitzaileen elkarteetakoek aholkuak eman dizkigute, badaezpada:

etiketaren garrantzia dela, produktuen kalitatea dela... Astelehenean hasi ziren beherapenak geurean, eta martxoaren 31 arte egongo dira.

# Merezi du beherapenetan erostea?

## Olentzerok ekarri ez digun kapritxoaren bila



ELENA LAKA  
Abokatua

**B**eherapenetara joatea plazer handia da. Gizarte kontsumista-kapitalista-globalizatu honek eskaintzen digun plazerra, baina zenbat plazer ez ote dizkiogun zor gizarte honi, futbola, goi mendietara Gore texez ondo hornitua joatea edo bidaiak antolatutako barne? Niretako, gainera, emakumeen esterotipoaren kontra, bakarrik disfrutatzea gustatzen zaidan plazerra. Hartu arratsalde bat, arropa eroso, helburu jakinik gabe, dendaz denda, zer merkeago aurkituko. Premiazkoak dituzunak eta ez dituzunak erostera. Ukalondoka, izerditan, jende mordoa denda barruan. Eta moda-modako gona, jaka edo jertse hori, premiazkoa ez duguna, baina ondo etorriko zaiguna, eta gainera, zer arraio! "Zelako polita!" premiazkoa erostera joan ginenean garestiegi iruditu zitzaiguna. Edo Olentzerok ekarri zigun barruko arropa praktikoa horren orde, ekarri ez zigun kapritxo hori erostera. A! baina, ez ei da hori politikoki zuzena: kontsumitzaileen ordezkariak, gure zaindari onenak, beti aholkutan: "Erosi behar dituzun gauzak bakarrik". Ez adarrik jo! Gizarte kontsumista da gurea, beti dihardugu erosten behar ez ditugun gauzak edo behar ditugunak baino gehiago edo handiagoak. Orain merkeago badaude, ez da hobeto garai honetan erostea eta ez egutegiak derrihortuta abenduaren 20a eta urtarrilaren 5a bitartean?

Hori bai, arratsaldea beherapenetan pasata, etxera iritsi, hankak beratzen jarri, baso bat esne eta ohera goizago. Ez dut ezagutzen plazer nekagarriagorik.

## Gora beherapenak!

**M**erezi duen beherapenetan erostea? Bai, horixe! Errege eguneko oparietan dirua barra-barra gastatzen ibili gara, salneurriari begiratu barik. Orain, astebete geroago, osterara, dena merketuta daukagu. Begitan hartu nituen praka edo alkandorak, bi edo hiru mila pela merkeago. Zelan ez dugu erosiko, bada?

Onartzen dut merkealdietan erostea gustuko dudala. Ez dut esango dendarik denda, jende artean, bata besteari bultzaka, aritzea gustatzen zaidanik, edo beherapenak hasi eta dendak zabaldu orduko merkatalgunera hurbiltzen naizenik. Baina, jenderik ez dabilenean, astegunetan, edo eguerdian (ixten ez duten dende-

## Erosketen 'Eldorado' baten bila



IÑIGO URRUTIA  
Kazetaria

**M**erkealdiak indarrean dauden bitartean, kontsumitzaileak eroso samar bihurtzen direla dio topikoak, baina hau egia erdia (gezurra) bada ere, hainbat arrazoi aurki ditzakegu beherapenak pikutara bidaltzeko; lehenik, hiritarroi hala-hola 'agintzen' digutelako Gabonak pasa ondoren gelditzen zaizkigun txanponak gastatu behar ditugula derrigorrez. Aitzakia? Merke erostea. Baina, esperientziak erakusten digu buru-belarri ez bagabiltza, azkenean ezertarako behar ez ditugun artikuluak erosten ditugula. Korolaria? Behar-beharrezkoa ez duzuna erosten duzula.

Bestetik, eta printzipioz, merkealdiek kontsumismoaren gorapaitze irrazionala dakarte, kontsumoaren atzean ezkutatzen den ideologia gizakia kontsumitzaile huts bihurtzen duelako: lan-indarraren prestaketa diruaren truke eta, katea ixteko, diru hori gastatzeko behar geldiezin sormena (merkatuak eta publizitateak beharrak sortarazten ditu, ahal bada, leporaino hipotekaturik egon gaitezten). Adibide argia, patinete madarikatuen moda. Zenbat iraungo dute? Seguruenik, ezer gutxi, hainbeste saldu ondoren, norbaitek behar berri bat asmatuko du eta.

Azkenik, denbora. Lan egin, gastatu eta lolo egitera. Bapo. Aisialdirako denbora laburragoa dugu, baina askok, itxuraz, ez dute inolako eragozpenik hiperdendetan norabiderik gabe ibiltzeko, erosketen "Eldorado" baten bila.

tan) arropa artean ibiltzea, bai, gustuko dut. Horregatik, aurten ere, asteburuan hartuko dut astirik erosketak egiteko. Azken batean, eguna pasatzera hiriburuetara joateko aitzakia besterik ez da. Gustuko ezer topatzen ez badut, zinemara joango naiz, sarrera betiko prezioan egon arren. J.M. GARCIA / Arrasate

## Gora eta Behera

### 'ANDRA', EMAKUMEON AHOTSA EGUNKARI FORMATUAN



Andra egunkariaren lehen zenbakia kioskoetan da jadanik, eta datuen arabera, irakurleen artean

harrera ezin hobea izan duela esan beharra dago. Emakumeon arazoak plazaratzeaz gain, Andrak generoaren ikuspegia erabiltzen du bestelako informazio orokorrak aztertzeko. Txalogarria!

### EUSKARAREN KONTRA



Nafarroako gobernua gogor jokatu du euskarren kalterako. Aurrerantzean, Nafarroara hurbiltzen garenean, errepide seinaleak erdara hutsean ikusiko ditugu, administrazioko paperak eta inprimakiak erdaraz agertuko dira soilik, eta neurri bera zabalduko da beste errotulazioetara ere.

Hori gutxi balitz, Eusko Ikaskuntzari 12 milioiko diru laguntza ez ematea erabaki du. Lotsagarria!



ROSA MONDRAGON  
Kazetaria

## Koplak

### Bertsolari ezkutua

Presaren lotsarekin nahasi koplak idazten naiz hasi oraindik ere ezetz esaten ez dudalako ikasi.

Titulu haundien jabe ez hastea nuen hobe kopla sorta hau utzi behar dut sinadurarikan gabe.

Txutxumutxu eta marmar niretzat ez ditut behar "bertsolaria" titulua be galduko bait nuke azkar.

Bertsolari zahar tristeak horren gaizki idazteak estimulua ekar lezake hasi daitezen gazteak.

Bost kopla zaizkit "eror" triste xamarra da hori beraz, nor naizen igarri badok ez esan beste inori.

Seigarrenekin nahikua hau be ganora bakua berriz holakoik pasau ez dadin gazteok hartu lekua.

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## Ibarretxek hauteskundeak aurreratu beharko lituzke?

**Goienkaria**  
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA:  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkorobezibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

SAILIETAKO ARDURADUNAK  
Marijo Deogracias (Kultura,  
Denborapasa, Telebista),  
Edu Mendibil (Kirola,  
Non Zer), Aintzane Irizar  
(Berri-Zakua),  
Goio Arana (Diseinua),  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Uxue Zabaleta, Arantzazu  
Lagunilla, Nerea Zallo  
ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Aitziber Langaran  
MAKETAZIOA  
Goio Arana, Maddi Trutxuelo,  
Iñaki Iturbe  
TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate


**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENAKARIA: Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar





**L**uis Mari Ugalde (Bergara, 1938) Venezuelako pertsonarik ezagun eta ospetsuenetakoa da. Izugarria da bere curriculum: besteak beste, Venezuelako Andres Bello unibertsitate katoliko errektorea eta Jesusen Lagundiak Hego Amerikan dituen unibertsitate guztietako presidentea da. Gabonetan Bergaran izan da, jaiotetxean, eta berari elkarrizketa egiteko parada izan dugu.



ENEKO AZKARATE

## Luis Mari Ugalde

JESUSEN LAGUNDIAK HEGO AMERIKAN DITUEN UNIBERTSITATEETAKO PRESIDENTEA

# “Bakea lortzeko elkarrizketa bultzatu eta aurkaria errespetatu egin behar da”

HUGO CHAVEZ

**“Hugo Chavezek herriarekin bat egin du, baina kudeaketarako ez dauka dohainik. Bi urte daramatza boterean eta gero eta langabezia handiagoa dago; pobre gehiago dago”**

EUSKARA

**“18 urterekin Venezuelara joan nintzen, baina etxean ikasitako euskara ez dut galdu”**

**Espainiako gobernuak badauka zeresanik gatazkaren konponbidean. Zure ustez, behar duen beste egiten du egoera konpontzeko?**

Arazo eta gatazka guztiak elkarrizketaren bitartez konpontzen dira, Hego Amerikan badugu esperientziarik. Orain, zeren gainean egin behar den berba? Hori ez dut esango.

**Eta elkarrizketari baldintzak jarri behar zaizkio?**

Ez, benetakoa izateko ez zaio baldintzarik jarri behar.

**Venezuelan zelan ikusten da Euskal Herriko arazoa?**

Euskaldunek irudi ona dute Venezuelaren. Gerra ondoren, eta lehenago, orain dela 250 urte inguru, euskaldun asko joan zen harantz eta erakunde asko sortu eta bultzatu dituzte euskaldunek. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen bultzatu ditu eta euskaldun gazte asko joan dira Hego Amerikara behartsuei laguntzeko. Hori Euskal Herria ezagutzeko modu bat da, nahiz eta telebistan, sarritan, atentuen berri bakarrik eman.

**Mondragon Unibertsitateko (MU) errektore Javier Retegirekin egon berri zara...**

Hemen egiten den lanaren berri izan dut. MUREn eredu oso interesgarria iruditzen zait, hemengo enprekin oso errotuta dagoelako. Bestalde, elkarrekin zer edo zer egiteko aukera aztertuko dugu; posible dela uste dut.

**Venezuelan unibertsitatearen eta boterearen arteko harremanak zela-koak dira?**

Orain dela 11 urte gizarteak eztanda egin zuen, zelabait esatearren. Prezioek gora egin zuten nabarmen eta bi egunean lapurretak-eta izan ziren. Jendeak ikusten zuen gobernuan eta honen inguruan zeudenak aberastu egiten zirela eta herriarren gehiengoa gero eta txiroagoa zela. Ondorengo egunetan errepresioa oso gogorra izan zen: ofizialki 500 hildako izan zirela esan zuten, baina gehiago izan ziren.

Garai hartan, Andres Bello unibertsitateko errektoreordea nintzen eta auzo pobre batean bizi ginen. Egun batean, gauerdian, gerrillarien kontrako komando bat etorri eta atxilotuta eroan gintuzten. Askapenaren teologia zabalitzen ari ginela esanez. Sekulako iskanbila sortu zen, parlamentuan eztabaidatan ibili ziren eta gobernuak barkamena eskatu behar izan zuen. Hiru egun egon ginen atxilotuta. Zera galdetzen zuten: ea unibertsitateko errektoreorde batek auzo pobre batean zer egiten zuen. Bestalde, 1972an unibertsitate bota gintuzten ikasleek eskaerekin bat egitearren, eta gobernuak ahalegina egin zuen gu Venezuelatik kanporatzeko. Azkenean, dena konpondu zen.

**Hugo Chavez Venezuelako presidentearen lanarekin kritikoa zara.**

Chavezek herritarren sentimenduekin bat egin zuen. Kontuan izan behar da azken 20 urteotan Venezuela pobretu egin dela: bizimodua garestitu egin da, soldatek behera egin dute, aberatsak inoiz baino aberatsago dira, gobernuan eta boterean ustelkeria izan da nagusi...Guk beti kritikatu dugu hori. Chavezek esan zuen egoera horri buelta emango ziola, baina ez du lortu. Berehala antzeman nion gobernatzen ez zekiela. Hauteskunde kanpainan beraren mitin batean egon nintzen eta prentsan idatzi nuen hauteskundeak irabazi egingo zituela, baina, ordea, ez zuela jakingo gobernatzen. Herriarekin bat egin du, baina kudeaketarako ez dauka dohainik. Bi urte daramatza boterean eta gero eta langabezia handiagoa dago; pobre gehiago dago.

Orain, Kubarekin ari da harremanetan. Uste dut ez dela eredu egokia. Orain dela 40 urte lan ona egin zen Kuban, baina gaur egin ez dago Kubarik, eta bide horretan sartzea hankasartze hutsa iruditzen zait.

**Komunikabideetan sarri irteten zara eta ospe handiko iritzi-emailea zara Venezuelaren.**

Hezkuntza, gizarte, kultura eta ekonomia arloko artikulatuak idazten ditut, batik batik. Venezuelaren petrolioak dauka eta jendeak uste du aberatsak garela. Hori ez da horrela. Sormenerako eta lanerako gaitasuna duten herritarrek atera dezakete aurrera herri bat. Petrolioak dirua ematen dio gobernuari eta diru hori herritarrei ematen die. Askok eta asko limosna horretatik bizi da, eta hori barneratuta dauka herriak. Lehengo aberatsen moduan: ‘Ni joango naiz Parisera eta aitak bidal diezadala dirua’. Horrelako pentsamenduekin ez dago aurrera egiteko. Nazio baten aberastasuna ez da urrea, herritarren sormena baizik. Ematen dizutenetik bizi bazara, pobrea izango zara beti, eta hori gertatzen da Venezuelaren. Euskal Herria pobrea zen eta herritarren lanari esker aberastu da.

ENEKO AZKARATE

**Gaztetatik Euskal Herritik kanpo bizi arren, euskaraz primeran egiten duzu.**

Txikitan alde egin nuen Bergaratik: 12 urterekin Nafarroara joan nintzen ikastera eta oporretan bakarrik etortzen nintzen etxera; 18 urterekin, ostera, Venezuelara joan nintzen. Hala ere, etxean ikasitako euskara ez dut galdu, Bergarako euskara, alegia. Eskolan-eta gaztelaniaz jardun arren, etxean beti egin dugu euskaraz; horretan gurasoak zorrotzak izan ziren.

**Egiguzu berba Venezuelako Andres Bello eta Latinoamerikako Jesusen Lagundiko unibertsitatei buruz.**

Jesusen Lagundiak Hego Amerikan dituen 25 unibertsitateak AUSJAL izeneko elkarte batuta daude, eta ni naiz elkarte horretako presidentea. 200.000 ikasle ari dira unibertsitate horietan. Gure ustez, Hego Amerikan dauden unibertsitate askok ez dute behar duten lana egiten, ez daude herriarekin errotuta. Bestalde, Venezuelaren, dena, 30 bat unibertsitate daude, erdiak publikoak eta beste erdiak pribatuak. Hala ere, publikoan ikasle gehiago daude. Pribatuaren artean, Andres Bello da onena; ospe handiko unibertsitate da. Guztira, 14.000 ikasle ditugu.

**Laupabost urtetik behin etortzen zara Euskal Herrira. Oraingoan, zelan aurkitu duzu?**

Ekonomia arloan sekula baino hobeto, eta, bestalde, kulturaren eta euskararen arloan asko aurreratu da, lan handia egin da. Horregatik ez balitz, honezkeroko euskara galduta edo erdi galduta egongo litzateke. Horrez gain, lehengo aldean, herriak hobeto zainduta ikusten ditut.

Orain, Euskal Herriak bizi duen gatazkari irtenbidea bilatu behar diogu: geure nortasuna galdu barik eta herri izaerari eutsiz, unibertsitate izatea lortu beharko genuke. Horretarako, askotariko ideiak hartu behar dira kontuan eta ondokoaren pentsamoldea, ideologia edo hizkuntza errespetatzen ohitu behar gara. Ni 18 urterekin joan nintzen Venezuelara eta hangoa naiz, baina nortasuna ez dut galdu, eta hori ona da. Hala ere, munduan barrena ibili naiz eta beste herri batzuk ezagutu, errespetatu eta maitatzeko aukera izan dut. Bakea lortzeko elkarrizketa beharrezkoa da, baina horretarako aurkaria errespetatzen jakin behar da.

**Gatazka politikoa eta indarkeriaren arazoa gaiztotu egin dira azkenaldian. Zelan ikusten duzu?**

Su-etena bukatu ondorengo epealdia oso gogorra eta tristea izan da. Horrek, gainera, Euskal Herriaren irudia kanpoan ahuldu egin du.

# Bailarako Realzaleak eta Athleticzaleak derbiaren zain

## SAUL OSINAGA / *Bonba Taldie*

**1.** Bai, Anoetara joateko ohitura daukagu eta domekan ez dugu hutsik egingo. Egia da hasieran Bonba Taldien lagun gehiago gine-la, baina 25 bat lagun-edo izango gara domekan, goizetik, gainera.

**2.** Derbiak guztiak dira, baina urtetan hori izan da bakarra eta tradizio handiena du, ez dago dudarik. Alavesen eta Osasunaren aurkako partiduetan ere giro berezia egoten da.

**3.** Ni neu ez nago oso konforme Toshacken fitxaketarekin, lehendik ere ezagutzen dugulako. Urangak kargua utziko duela kontuan izanda, zuzendaritzak lasterregi jokatu du nire ustez.

**4.** Ez, Bonba Taldiekook ez ditugu txalotzen Athleticci egiten dizkioten golak. Baina, Athleticen kontra dagoen zale dezente dago Anoetan.

**5.** Bittor Alkiza, nahiz eta aspaldian jokatzeko ez dabilen. Yeste ere gustatzen zait. Asper ekarri baino, Imanol Etxeberria fitxatu izango nuke.

**6.** Giro ona izaten da jeneralean, nahiz eta batzuetan istixoren bat edo beste egon. *Pike* sanaa egotea ondo dago. Hortik aurrera, ez.



**7.** Anoetako alderdi kritikoaren jarrera, animatzen ez duena. Giroa nahiko hotza izaten da batzuetan, eta atletismo pistak ere zerikusia du horretan.

**8.** Fitxaketa politika, hemengo jokalaririk hartzen dituztela, nahiz eta guztiak euren harrobikoak ez izan. San Mames ere asko gustatzen zait.

**9.** Athletic baino postu bat aurrerago nahi..., eta biak UEFA n sartzen badira, hobeto.

**10.** 3-1, Realaren alde. Gol asko dira, baina jokalariek dutena baino gehiago emango dute domekan.

Domekan Real eta Athletic taldeak aurrez aurre izango dira Anoetako euskal derbian. Bailaran badira talde baten eta bestearen jarraitzaileak eta Arrasateko Bonba Taldie eta Bergarako Peña Athletic Clubeko ordezkariekin izan gara.

1. Domekan Anoetara joango zara?
2. Euskal derbien artean nagusiena da Real-A Athletic?
3. Zure taldeak entrenatzaile egokiena dauka?
4. Ligako partiduetan kontrako taldeari egiten dizkioten golak txalotzen dituzu?
5. Kontrako taldeak zein jokalaririk fitxatuko zenuke?
6. Zer nolako harrera jasotzen duzue aurkarien zelaian?
7. Zer gustatzen zaizu gutxien zure taldeak?
8. Esan kontrakoekin dohain bat.
9. Zenbatgarren bukatuko du zure taldeak?
10. Domekarako pronostikoa?

## FERMIN HERNANDEZ / *Peña Athletic*



**1.** Ez, taldeko batzuk joango dira, baina nik ez daukat derbi-talderako joateko ohiturarik. Partidu aurreko giroa bikaina da, baina zelaian entzuten diren irainak-eta ez zaizkit gustatzen.

**2.** Bai, lehen mailan denbora gehien daramaten euskal taldeak direlako. Alaves desagertzeko zorian egon zen eta Osasunari ere Athleticen lagundu behar izan zion egoera larrian zegoen. Bi taldeek markatu dute euskal futbolaren historia. nolabait.

**3.** Ez, Rojo ez zait gustatzen, harroegia delako eta ez delako Athleticekin ezer egin. Temperamentuagatik, Goikoetxea izatea nahiago nuke.

**4.** Ez, taberna batean elkartzen gara partiduak ikusteko eta batek edo bik bakarrik txalotuko dituzte Realari sartzen dizkioten golak.

**5.** Arantzabal, ez Bergarako delako, baizik eta jokalaririk bikaina dela azaldu duelako aurreko denboraldietan. Ez dut uste bat-batean futboleko jokatzeari ahaztu zaionik. Selekzioarekin eta Realarekin partidu gehiegi jokatu ditu, beharbada.

**6.** Euskaldunon artean harreman ona izatea da garrantzitsua, eta nahiz eta batzuetan berba bat bestea baino altuago esan, jeneralean, giroa bikaina da.

**7.** Defentsa nahiko kaskarra daukagu. Gure entrenatzaileak badu zertan hobetu.

**8.** Une honetan, ezer ez. Gol morodo bat egiten dizkiote Realari eta ate aurrean ez dute asmatzen. Ez dabilta batera ondo.

**9.** Nik uste dut 6. eta 10. postuaren artean geratuko dela Athletic. Ea Real, gutxienez, 15. sailkatzen den...

**10.** Bina. Azken urteetako derbi-talderaren berdintzera edo gal-tzera ohitu gara.

## Juanina Garai

BERGARA TALDEKO ENTRENATZAILEA

**N**a hiz eta Athleticzalea naizen, Realak irabazi beharra dauka domekan, zuloan sartuta dagoelako. Badakit Athleticen urte asko daramatzala derbia irabazteke, baina Realak puntuak lortzeko premia handiagoa duenez, ez litzaidake axolako Realak irabaziko balu.

Derbiant gertatzen den bezala, ez dut uste futbol ona ikusteko aukera izango dugunik. Gainera, bi taldeak zelan dabil-tzan ikusita... Realak gogotsu ekin behar-kio partiduari. Hasierako minutuetan Athletic atzealdean sartuko da ziurrenik. Toshack beti gustatu izan zait, Realaren-dako entrenatzailearik onena da, baina berarekin pazientzia izan beharko dute.



*"Bi taldeen egoera ikusita, eta derbi bat dela kontuan hartuz, ez dut uste partidu ona izango denik"*

## Gorka Zelaia

ALOÑA MENDI TALDEKO ENTRENATZAILEA

**K**onfiantza osoa dut Toshackengan; taktikoki eta psikologikoki maisua dela iruditzen zait. Nor-tasun handiko entrenatzailea da eta, nire ustez, bera da pertsonarik egokiena Real jaitsiera postuetatik ateratzeko. Bestalde, berak egin ditu fitxaketarik onenak Realean egondako urte-etan.

Derbiak ez du zerikusirik izaten gainerako partiduekin, baina etxean jokatzeko denez, Real da faborito. Gola egiten duen taldeak irabaziko du partidua domekan, eta Realak erraz irabaziko duela uste dut. Athleticen ez du etxetik kanpo partidu-rik irabazi aurtengo ligan eta pena litzateke aurrenekoa Donostian irabaztea.



*"Derbiak ez du zerikusirik izaten gainerako partiduekin, baina Anoetan jokatzeko denez, Real da faborito"*

## Enrique Nieto

UDA TALDEKO ENTRENATZAILEA

**B**i taldeak puntuak lortzeko behar-rean daude eta tentsio handiko neurketa izango da, ziurrenik. Athletic hobeto ari da jokatzeko eta domekan partidua irabaz dezake, nahiz eta orain arte, Anoetan jokatu partidu-etan, ez duen irabazterik lortu. Realak irabaztea nahi nuke, baina buruak bihotzaren kontrako esaten dit.

Real azken postuan dago, eta hori jokalarien errua da. Ezin daiteke esan Clemente eta Alonso txarrak izan direnik, eta orain Toshackek taldea aurrera aterako duela. Jokalariek euren kontzientziaren azterketa egin beharra daukate, erantzukizuna beraien da eta.




*"Bi taldeek dute puntuak lortzeko beharra, eta, horregatik, tentsio handiko neurketa izango da"*

## Raul Leiba

MONDRA TALDEKO ENTRENATZAILEA

**T**oshack entrenatzailearen etorrera taldearen onerako izan da eta domekan, Zaragozaren aurkako partiduan, hobekuntza nabaritu nuen Realaren jokoan. Bestetan baino hobeto ikusi nuen taldea eta domekan Athletic irabaziko dela uste dut.

Athleticen partidu asko daramatza Realari irabazteke eta, nahiz eta zapatuan Malagaren aurka itxura ona eman, oraindik ez du etxetik kanpo partidu-rik irabazi aurtengo ligan. Real da nire faboritoko domekako partiduari begira. Realzalea naiz eta ea nire pronostikoa betetzen den zulotik ateratzeko premian baitaude donostiarrak.



*"Toshacken etorrera taldearen onerako izan da, hobekuntza nabaritu da dagoeneko"*

Reala 2-1 Athletic

Reala 3-0 Athletic

Reala 1-2 Athletic

Reala 2-1 Athletic

Podiuma

# Joseba Larrinaga | ATLETA PARAOLINPIKOA |

**J**oseba Larrinaga atleta atxabaltarra (32 urte) bosgarren izan zen Sidneyko Joko Paraolimpikoetan, maratoi proban. Aurreko jokoetan, Atlantan, zilarrezko domina lortu zuen Larrinagak.

**Zer nolako esperientzia izan zen Australiakoa?**

Esperientzia pertsonala zoragarria izan da, jende ugari eta beste lurralde bat ezagutzeko aukera izan dudalako. Sidney oso hiri polita iruditu zitzaidan, eta hango jendea, oso jatorra eta irekia. Primeran pasatu genuen.

Kirol aldetik, berriz, Atlantan lortutako emaitza errepikatu nahi nuen, baina bosgarren izan nintzen. Hala ere, emaitza ontzat ematen dut, ibilbidea oso gogorra zelako eta jendea oso ondo prestatuta joan zelako.

**Sasoi onenean heldu zinen Sidneyra?**

Egindako testak eta probak ikusita, sekula baino hobeto prestatuta joan nintzen. Bi ordu eta 42 minutuko denbora egin nuen, Atlantan egindako denbora bera, baina kontuan izan behar da Sidneyko ibilbidea gogorragoa zela. Ibilbidearen bigarren zatiak gorabehera asko zituen eta nahiko neketsua egin zitzaigun. Atlantan txarrena eguraldia zen, sargori zegoen eta.

**Noiz hasi zinen maratonia prestatzen?**

Espezifikoki, uztailean. Aurretik krosa egin nuen eta ekainean, berriz, nahiko lasai entrenatu nintzen. Uztailean entrenamendu denbora, kilometrajea eta erritmoa handitu nituen



Joseba Larrinaga Aretxabaletako kirol etxean ari da lanean.

**“Sekula baino hobeto prestatuta joan nintzen Sidneyko maratoira, eta bosgarren postua ontzat ematen dut”**

**“Gutxitu intelektualen federazioak gaizki jokatu zuen eta jokoan ondorengo polemikak, zoritxarrez, gutziongan eragina izan du”**

(Pedro Mari Azkargorta entrenatzailearekin) eta abuztuan Sorian entrenatu nintzen, goizez eta arratsaldez. Iraileko bigarren hamabostaldian Segovian entrenatu nintzen, altitudia aprobetxatzeko; urriaren hasieran Australiara joan ginen. Azken bi hilabeteetan, egunero, 25 bat kilometro egiten nituen korrika. Sidneyko maratoi

proba urriaren 29an izan zen. Ondo bukatu nuen proba eta pozik bueltatu nintzen Australiatik.

**Aurtengo Joko Paraolimpikoetan, zenbait kiroletan polemika piztu da.**

Jokoak amaitu eta gero kaleratu zen saskibaloiko zenbait jokalarari gutxituak ez zirela. Gutxitu intelektualen federazioak gaizki

jokatu du eta txarrena da polemika horrek gutziongan eragina izan duela. Euskal Herriko paraolimpikoen artean ez da horrelako kasurik egon. Ezgaitu fisiko bati edo itsu bati igarri egiten zaio garbi ari den jokatzeko, baina gutxitu intelektualekin zailagoa da jakitea. Jakinekoez gero horrelako zerbait gerta zitekeela eta pena izan da jokoan aurretik izan beharrean, salaketa jokoak amaitutakoan egin duela saskibaloiko taldeko jokalarari batek. Zoritxarrez, benetako urritasun bat dugunoi ere, neurri batean, eragin digu polemika horrek.

**Ezgaituen artean hainbat maila daude. Zeinatan hartu zenuen parte?**

Ezgaitu fisikoaren artean, ezkerreko besoan, jaiotzez, paralisi brakeala izeneko gaitza dut eta. Urritasun horrekin psikomotrizitatea galtzen dut korrika egiterakoan.

**Noiz hasi zinen maratonia korritzen?**

Orain dela 11 urte, Berlingo mundialean. Ordutik hona, makina bat maratoitan izan naiz. Nire markarik onena bi ordu eta 35 minutuko da.

**Zein da zure hurrengo helburua?**

2002ko mundialean parte hartzea gustatuko litzaidake. Hurrengo olinpiadak, Atenaskoak, pixka bat urrun geratzen dira eta ez zait gustatzen epe luzean planik egitea. Nahiago dut epe motzera eta erdira jokatu. Gainera, Sidneyn egon den maila altua ikusita, ondo prestatuta joan behar duzu, eta pausoz pauso joatea, onena.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jesus Arantzabal Txirrindularia



Jesus Arantzabalek hiru aldiz amaitu zuen Frantziako Tourra.

**Arantzabalek Fagor eta Bic taldeetan korritu**

**zuen 1966tik 1972ra bitartean.**

**Gaur egun Maxim's kafetegia du Bergaran.**

**J**esus Arantzabal angiozartarra (Iribekotxo baserrikoa), profesioletara igaro baino lehen, txirrindularitza lagatzeko puntuan izan zen: “1965 urtean ez nengil baten ondo eta bizikleta lagatzekotan nengoen. Labadie Angletera joateko proposatu zidan eta handik urtebetera Fagorrekin fitxatu nuen, Pedro Matxain taldeko zuzendaria zela”. Fagorrekin lau denboraldi egin zituen eta 1970. urtean Bic taldeak fitxatu zuen. Hortxe Luis Ocaña izan zuen taldekide. Aurretik, afizionatuetan, Luis Otañok erloju kontrako 100 kilometroko proban zuen Gipuzkoako errekorra hautsi zuen. Berak dioenez, “aldapan gora defenditu arren, ibilbide laua nuen gustukoan, errodadorea nintzen”.

Frantziako Tourra hiru aldiz bukatu zuen eta 1967koan etapa bat irabazteko zorian egon zen. Urte hartan sailkapen orokorrean 37. izan zen. Espainiako Itzulian zazpi aldiz izan zen eta behin bakarrik ez zuen amaitu, Ocaña bere taldekideak itzulia irabazi zuenean, hain zuzen. Espainiako Itzulian bertan lortu zuen bere garaipenik inportanteena, beharbada, 1972an. Gasteiz eta Donostiaren arteko azken etapa irabaziz. Era berean, Euskadiko Itzulian, Volta a Catalunya, eta Portugalen hainbat etapa irabazi zituen.

Arantzabal 32 urte zituela erretiratu zen, eta ordutik hona berak zabaldu du Maxim's kafetegia ari da lanean. Orain, 61 urterekin, txirrindularitza telebistatik eta egunkaririk jarraitzen du, batik bat: “Lehenengo eta gaurko txirrindularitzaren artean alde handia dago, txirrindularien prestaketan batez ere. Lehen, gure kontura entrenatzen ginen, eta gaur egun, preparazioa asko zaintzen da” / E. M.

**“Lehen, gure kontura entrenatzen ginen eta gaur egun, aldiz, preparazioa asko zaintzen da. Alde handia dago txirrindularien prestaketan”**

Jesus Arantzabal • Bergara • 1939



## Nire Pronostikoa

JOSE MARI ZEZEAGA / ASPEko pilotaria

**A**stebukaera honetan hasiko da eskuz binakako txapelketa eta, egia esateko, berdintasuna da nagusi. ASPEko taldean maila handiko bikoteak daude eta sailkatzea ez da erraza izango. Gure multzoan Haimar Olaizolak eta Bernak osatzen duten bikoteak sorpresa eman

dezake. Lehenbiziko partiduan ea Capellan eta Elkorori irabazten diegun Logroñon. Jokinek eta Lasak zaila izango dute partidua irabaztea. Futbolearen, euskal derbian, Realaren alde apostu egingo nuke, komeni zaio-eta irabaztea. Eta Alavesek Mallorcan berdintzea ez legoke txarto.

Astebukaera honetako partiduak

<b>A/</b> Eugi-Goñi III.a	22	Etxaniz-Lasa III.a	19
<b>B/</b> Titin III.a-Zezeaga	22	Capellan-Elkoro	19
<b>C/</b> Reala	2	Athletic	1
<b>D/</b> Mallorca	1	Alaves	1



# OMU

## Zeramika, arte unibertsala

BILTEGIA ETA BULEGOAK:  
Tel./Faxa: 943 79 14 28  
Meatzerreka, 6 • ARRASATE

ERAKUSKETA:  
Tel.: 943 79 07 20  
Ignacio Zuloaga, 4 • ARRASATE



**Eskaintza:**  
Lehenengo  
100 bazkideek  
matrikularen  
%50 bakarrik  
ordainduko  
dute.

urtarrilerako zabalik



## Zainduz

OSASUN ETA FITNESS ZENTROA  
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

### Zure bizi-kalitatea dugu helburu!

Nargi Plaza, 6  
Aretxabaleta  
Tel. 658 75 80 12






# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko urtarrilaren 12a

Kultura  
eta  
Aisialdia





Urtarrilaren  
12tik 19ra



## Euskararen aldeko sariak

L iteratura zaletasuna egon bada-  
goela argi gelditu zen  
Durangoko Euskal Liburu eta  
Disko Azokan. Baina, badira gure-  
an beste "termometro" batzuk  
ere: literatura sariak, hain zuzen.  
Arrasate Euskaldun Dezagun  
(AED) elkarteak *Arrasate lehiaketa*  
liburua argitaratu berri du.  
Hamalau idazlan batu ditu;  
Arrasate lehiaketak-era aurkeztuta-  
ko lanik onenak, alegia.  
Aretxabaletako Loramendi euskara  
elkarteak, bestalde, urtarrilaren  
18an banatuko ditu  
Aretxabaletako eskola arteko XII.  
Loramendi literatura lehiaketako  
sariak. Eta Bergarako Jardun  
Elkarteak antolatzen duen  
Amodiozko Gutunen Lehiaketan  
parte hartzeko epea ere oraintxe

amaitu da. Lehiaketa horren sari  
banaketa otsailaren 14an egingo  
da, San Valentín egunean.  
Hiru euskara elkarte hauek jende-  
arengan eragina izan dute, bakoit-  
zak bere esparruan, jakina. Izan  
ere, Aretxabaletako eta  
Mondragoekoak gazteenen artean  
antolatzen dira, baina Amodiozko  
Gutunen Lehiaketa, 1986a baino  
lehen jaiotakoei zuzenduta egote-  
az gain, Euskal Herri osora ere  
zabaltzen da. /14



# Euskararen aldeko sariak

## Amodiozko Gutunen Lehiaketa/ Bergara



## Nekane Gabilondo / Jarduneko kultura eragilea

### Zenbat lan jaso dituzue?

156 gutun jaso ditugu, baina oraindik ere beste batzuk iritsiko dira posta bidez. Iaz baino lan gehiago jaso ditugu. Iaz 133 jaso genituen, eta orain bi urte 213 gutun aurkeztu ziren.

### Nondik iritsi zaizkizue lanak?

Gehienak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik, baina Lapurdi eta Nafarroatik ere jaso ditugu. Bederatzi urtean Euskal Herrian oihartzuna izatea lortu dugu eta lehiaketa nahiko errotua dagoela esan genezake. Internetez ere zabaldu dugu lehiaketa mundu osoko euskal etxeetara, baina jaso ditugun erantzunen artean ez da parte hartzailerik egon. Hala ere, aurrerantzean ere egongo da aukera hori.

### Zeintzuk osatuko dute epaimahaia?

Kirmen Uribe eta Josemari Iturralde idazleek, Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak eta Maddalen Azpiolea iazko irabazleak. Euren emango dituzte sari nagusiak, baina bada beste sari bat ere, irakurle gazteen saria, hain zuzen. Hau Bergarako lau ikastetxeetako ordezkariek osatutako epaimahaia erabakitzen du. Aurten, Andoni Azkargorta (Miguel Altuna), Ane Olarte (Aranzadi), Mikel Larrañaga (Ipintza) eta Itxaro Arantzabal (Mariaren Lagundia) izango dira.

### Zein da saria?

Lehen saria, 75.000 pezetakoa; bigarrena, 40.000 pezetakoa; eta 25.000 pezeta, bergarar onenari. Azken sari honetarako, aurten amodiozko hamar gutun daude lehian. Irakurle gazteenaren irabazleak Xabier Diaz de Zerio eskultore bergararren eskultura eramango du.

### 2002. urtean hamargarren aldiz antolatuko duzue. Ezer berezirik egingo duzue?

Bai, ziur, baina hori sekretua da.

### Noiz izango da sari banaketa?

Otsailaren 14an, San Valentin egunean. Kartzela zaharrean ekitaldi xume bat egingo dugu arratsaldeko 7etan.

## AED lehiaketak/ Arrasate

Hamalagarren aldiz antolatzen ditu aurten AEDk Arrasate lehiaketak. Otsailaren 5ean amaituko da lanak aurkezteko epea. Lehiaketan Leintz bailaran bizi, lan egin edo ikasten dabilen 17 urteko beherako guztiek parte har dezakete, eta adin horretatik gora Debagoiena guztira zabalitzen da parte hartzea. Eta aukera asko daude, gainera: ipuinak, poesia, komikia, bertso-paperak, irati erreportajeak eta euskalki-grabazioak landu daitezke.

Itxaro Artolak, AEDko kideak, azaldu digunez, "eskolendako tradizio bihurtu dira lehiaketak. Urteroko ekintza bihurtu dute". Berak azaldu bezala, lehiaketetan parte hartzen dutenen kopurua "eskola barruan lehiaketa antolatzeke hartzen duten moduak erabakitzen du. Izan ere, irakasleren batek erabakitzen badu bere ikasle guztiek parte hartu behar dutela, orduan, lan asko biltzen dira".

AEDk lan onenen bilduma argitaratzen du urtero: "Lehen, liburua ateratzen genuen. Orain dela hiru urtetik hona, berriz, aldizkari itxura ematen diogu argitalpenari, eta AEDko bazkide guztiei banatzen diegu. Guztira, 1.300 ale ateratzen ditugu".

Lanen kalitateari dagokionez, "mailaren arabera aldatzen doa. Epaimahaikide asko historikoak dira eta batzuek badute esperientzia eta eskarmentu nahikoa «lanak hobekuntza, edo ez» esateko, baina 12 urte dituen ume baten lanaren aurrean, ezin duzu askorik espero izan. Irakasleek dioten bezala, «orduan, nahikoa lan badute gazteek historiaren haria jarraitzearekin». 16 urteko gorakoek lan onak izaten dira; hala ere, gero eta irudimen gutxiago dute, estilo aldetik ere pobreakoak dira, eta euskararen kalitatea ikusita, erdarakada asko erabiltzen direla ere esan ohi dute epaimahaiko kideek.



## Loramendi lehiaketak/ Aretxabaleta

Esan bezala, Aretxabaletan ere antolatzen da literatura lehiaketarik eta abenduan amaitu zen lanak aurkezteko epea. Baina, oraindik ez dute saririk banatu. Hori urtarrilaren 18an egingo dute, Aretxabaletako Udaletxe zaharrean, arratsaldeko 7etan.

Aretxabaletako eskola arteko XII. Loramendi literatura lehiaketa Lehen eta Bigarren Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendua dago, eta horren arabera egin beharreko lanak bi arlotan bereizten dituzte: "Lehen Hezkuntzakoek ipuinak, poesiak eta antzekoak idatzi behar izaten dituzte. DBHkoei, berriz, zaharrei elkarrizketak egitea agintzen diegu; horrela, gure euskalkiaren aberastasuna jasotzeko aukera izaten dugu. Izan ere, ipuin zaharrak, kantu zaharrak eta antzekoak jasotzen dira, eta epaimahaia originaltasuna eta euskalkia izaten ditu kontuan.

Sariak honakoak izango dira: LHko lehenengo hiru lan onenei 15.000, 10.000 eta 8.000 pezetako txartelak emango zaizkie denetan materiala erosteko, eta DBHkoek bi multzotan jasoko dituzte sariak: lehenengo ziklokoek 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak izango dituzte, hurrenez hurren, eta bigarren ziklokoek, berriz, diru gehiago jasoko dute: 30.000, 20.000 eta 10.000 pezeta, hurrenez hurren.

MARIJO DEOGRACIAS

## Deba arroko euskeria batzeko ahalegiña

M.D.

Deba Balarako euskaltzaliak batzeko eta gure herri-hizkerak sendotzeko jaixotako Badihardugu Elkartia billeria egingo dau Oñatin, zapatuan. Elkartia azaruaren 25ian eratu zen Eibarren eta zapatuko billeran euskalkixan idazteko oiñarrizko ortografia arauak zehazteko biharra dala-eta horretan jarduteko asmoa daukate. Izan ere, elkarte berri horren helburua "ibar osoko euskaltzaliak batuko dituen gunia osatzia da, indarrak batu eta danon artian gure herri-hizkerari bultzadaxo baimoteko, bide batez euskeria bera sendotuz". Eta euren asmo zehatzak hauek txek dira:

- Gure hizkerak prestijiatzia eta konplexuak baztertzia. Euskalkixaren erabilera bultzatzea. Beti be Euskera Batua kontuan izanda, eta bakoitzak bere lekua daukala jakinda.

- Herri berbetiaren corpusa batzea eta euskara estandarrian bere lekua izan deian ziurtatzea.

- Gure berbetia aztertuz eta indartuz, euskeria bera sendotzea.

- Transmisiño naturala eta kulturala bultzatzea. Belaunaldi berrixen lekukua hartzea, transmisiñoa ziurtatzea eta erabillera-esparruak finkatu eta zabaltzea.

Horretarako, 150 lagunek Koldo Zuzok gainbegiraturutako txostena jaso dabe. Oñatin txosten horren gainean gutxieneko idaztarau batzuk adostuko dituzte eta maiatzera bittartean, Badihardugu Elkartia beste bizpahiru billera egiteko asmoa dauka, aditza, sintaxia eta lexikua lantzeko. Adierazi digutenez, "asmua ezda aditza bateratzea, baiña zenbait gauza antzerakua baditugunez Deba arroko euskalkixetan horrek adostea ondo legoke".

Zapatuko billeria Oñatiko Udal Euskaltegixan izango da, 09:30ean.



Badihardugu taldeko kide batzuk.

Kronika

Rocka: **Hermana Mary, Doctor Deseo eta EpiBlash DJ**

Nire aukera

# Badator, eta badoa, desioaren trena

**Taldeak:** Hermana Mary, Doctor Deseo eta EpiBlash DJak. **Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Urtarrilak 6, zapatua. **Iraupena:** Gaueko 22:30etik goizaldera arte. **Zenbatjende:** 920 bat lagun.

Joan den zapatuan Doctor Deseo agurtzeko aukera izan genuen Bergarako Jam aretoan. 2002. urtera arte talde bizkaitarrak eskainiko duen azken kontzertua zela eta, nik neuk beste zerbait espero nuen.

Azkenengo diskoa atera zutenetik hainbat aldiz ikusteko aukera izan dut taldea. Eta Jam aretoan ere bai. Hantxe eskaini zuen disko horren aurkezpeneko bigarren kontzertua. Orduan ere ez zen kontzertu oso bikaina izan. Francis abeslariak arazoak izan zituen bere *show*-an erabiltzen duen "kainoiarekin" eta azkenean, berak eskatuta, argi izpi barik gelditu zen eta kontzertuko argi orokorrekin moldatu. Baina, joan den zapatukoa bi urtez ezkutatu aurretik eskainiko zuten azken kontzertua izanik, Francis "berezi" bat espero nuen.

Bai, jakina, biluztu zen *Hauxe da pronografia, but I like it* abestiarekin eta beste neska bat ere igo zuen taula gainera gerrikoarekin Francis egur zezan *Encadenado a tus juegos* abestia, eta azkenean, *Todo va bien* kantuan, bere burua zauritzen saiatu zen kopa eder bat txikitu ondoren.

Francis beti izan da zirikatzailea. Abesten eta mugitzen hasi aurretik bere itxura ikusterik besterik ez dago: beltzez goitik behera, ezkerreko eskuko azazkalak gorritz margotuta, ezpainak bezala, eta galtzari eusteko gorri-gorria. Emagalduta itxura hartzen du okin horrek taulara igotzen den guz-



Francis Diezek agur esan zien bere jarraitzaileei 2002. urtera arte.

MARIJO DEOGRACIAS

**Bi ordu luze iraun zuen emanaldiak eta azkenean joan egin ziren. Bai, bai... joan... besterik gabe; "agur" esan eta alde egin zuten taula gainetik. 2002an ikusiko dugu elkar.**

tietan. Eta bere jarraitzaileek jakin bagenekien Jamen ere horixe egingo zuela.

**KANTU INTIMISTAK**

Kontua da, eta ez da gutxi, Hermana Mary ere ikusi genuela, Doctor Deseoren aurretik. Eta onartu beharra daukat proposamen benetan arriskutsua egiten duela taldeak. Abeslariak, irudiz nahiko goibeltzua, kantu intimistak aurkeztu zituen musikari bikainek egindako doinuez lagunduta.

Izan ere, Raul Lomas, teklatura jotzen duenak, Doctor Deseo teklatura ere jotzen du. Horrek guztiak, eta kontzertua berandu hasi zela ahaztu gabe, Doctor Deseoren agurra lasaia izango zela iragarri zigun. Hala ere, Fran-

cis Diezek (ahotsa), Joxi Jimenezek (baxua), Txanpik (bateria), Kikek (gitarra) eta Raul Lomasek (teklatura) *Atrapado en tu silencio... de incertidumbres y caricias* disko kantuak eskaini zizkiguten abesti zaharragoekin tartekatuz. *La chica del batzoki* ere jo zuten, zelan ez! Eta aurreko elkarlanean beste adibide bat: *Atrapado en tu silencio* abestia Hermana Mary taldeko biolinista eta Francisek interpretatu zuten.

Bi ordu luze iraun zuen emanaldiak eta azkenean joan egin ziren. Bai, bai... joan... besterik gabe; "agur" esan eta alde egin zuten taula gainetik. 2002an ikusiko dugu elkar.

MARIJO DEOGRACIAS

## Ruper Ordorika Musikaria

Gasteizen bizi nintzela, 70eko hamarkada hasiberri, Iñaki Mozos bergararrak niregana jo zuen, Gastei-



zen gitarrista onatit bat bazela entzun ondoren. Bere nahia Gasteizko Gabon kanta lehiaketa biok batera aurkeztea zen, nik gitarrarekin lagunduz. Halaxe egin genuen, eta zein abesti aukeratuko, eta hemen debekatua zegoen single batetik ateratako *Haurtxo-haurtxoa*. Singlea Iparraldeko Mixel Labeguerierenä zen, eta debekatuta egonda ere, lehiaketa irabazi genuen. Huraxe jendaurrean jotzen nuen lehen aldia izan zen, eta single hark erakutsi zidan bazela musikagintza euskaraz jorratzerik. Nolabait esateko, single hark bidea zabalduta zidan."

## 'HAURTXOA-HAURTXOA' Mixel Labeguerie



IÑIGO BIAIN

## Kaleratu berriak

Iban Arantzabal


LIBURUA | Poesia



Liburu honetan 1990 eta 2000. urteen artean euren buruak poeta moduan ezagutarazi zituzten egileen bilduma zabala dago. 20 idazle ditugu eta diren guztiak ez dauden arren, lagin ederra dago hemen. Batzuk aipatzearen: Juan Luis Zabala, Urtzi Urrutikoetxea, Kirmen Uribe, Castillo Suarez, Asier Serrano, Jose Luis Padron, Xabier Olaso... Zenbait idazleek hala eskatuta, lehendik argitaratu barik dauden poemak ageri dira, horrela, atzerantz egiten den begiradaz gain, etorkizunera zabalik dagoen liburua izanik.

**HITZEKO ZUBIA**  
Euskal Herriko Unibertsitatea

AGENDA | Urteko agenda



**EGUNKARIAKO AGENDA:**  
**URTEKO AGENDA**  
Egunkaria  
2.000 pta.

Ez da agenda bakarrik. Euskal Herri osoko telefono interesgarriez gain (autobusena, aireportuena, trenena, hedabideena, Euskararen telefonoak...), hirien arteko distantziak, Euskal Herriko errepide eta gunetouristiko en mapa... aurki genitzake bertan. Duen formatua izateak, aste-beteko bi orrialde, oso praktikoa egiten du. Iparraldeko eta hegoaldeko jaiegunak, santutegia, euskal izendegia eta efemerideak ere baditu egunez eguneko honek. Telefonoak apuntatzeko liburutxoa ere badakar *Egunkaria*ko agendak.

DISKOA | Haurrendako



**TAKOLO PIRITX ETA PORROTX**  
Parandan  
2.300 pta.

Ipuintxo eta ipuintxo artean 15 kantu daude. Seguruenik, laster ezagun egingo dira bai eskoletan eta bai kalean ere. Gaur eguneko pailazorik ezagunenek beste harribitxi bat atera dute. *Parrandan* deitzen den CDan suziariak, txaranga, Buruhandi eta erraldoiak, Zaldiko maldikoa, Mieltxo harrijasotzailea, San Ferminak eta abar agertzen dira. *Gaixoa ni* kantuekin amaitzen den CDa gustukoa izango da familiako gazteenendako.

# Urtarrila: 12-19

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri emateko bidali informazioa eguazteneko 12:00ak baino lehenago • Posta-e: goienkaria@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## Musika

### ARETXABALETA

> **Xabaltx** iparraldeko taldearen emanaldia gaur, egubakoitza, Kurtzebarri eskolan, 22:30ean.

### BERGARA

> **Johannes Skudlik** organista alemanaren kontzertua gaur, egubakoitza, hilak 12, San Pedro parrokian, 20:00etan.

> **Numen** talde arrasatearraren kontzertua zapatuan, hilak 13, gaztetxean, 22:30ean.

> **Sick of it all** datorren egubakoitzean, hilak 19, Jam aretoan.

> **Jose Luis Etxetxia** organistaren kontzertua hilaren 20an San Pedro parrokian, 20:00etan.

### ELGETA


> **Mal de ojo** taldea gaur, egubakoitza, hilak 12, gaztetxean, 22:30ean.

> **Mutrikuko Madalen abesbatza** zapatuan, hilak 13, elizan, 20:15ean.

### SORALUZE

> **Tonky Blues Band** gaur egubakoitza, hilak 12, Gaztelupe tabernan, 22:30ean.

> **Jazz emanaldia** eguaztenean, hilak 17, Gaztelupen, 21:30ean.



### AZKOITIA

> **Mikel Urdangarin** zapatuan, hilak 13, Baztartxo antzokian, 22:00etan.

## Erakusketak

### ARRASATE

> **Iñaki Bruñaren** margolan eta eskultura erakusketa Udalako Larrinetxe jatetxean, martxo bitartean.

### BERGARA

> **Usoa Mendikute** margolariaren erakusketa Kultura Etxean, urtarrilaren 12tik 21era.

> **Ane Garces** eta **Gorka**

**Elortzaren** olioak eta lumatxoak Nahikarin.

### OÑATI

> **Komite Internazionalistak** taldearen *Inperialismoaren eta bere aliatuen moral bikoitza* zapatuan, hilak 13, Foruen plazan, 12:30ean.

## Antzerkia

### ARETXABALETA

> **Sebastopoleko titiriteroak** taldearen *Mamutxoaren arazoa* antzezlana zapatuan, hilak 13, kirolegian, 17:00etan.

### BERGARA

> **Tanttaka** taldearen *Novecento. Ozeanoko pianista* antzezlana hilaren 19an Novedadesen, 22:30ean.

### OÑATI

> **8 olivetti poetiko** antzezlana datorren egubakoitzean, hilak 19, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

### ELORRIO

> **El fantasma mentiroso** haurrentzako antzezlana domekan, hilak 14, Arriolan, 17:00etan.

> **Los colegas de La Vega** taldearen *Ojalemos que aplausen* antzezlana datorren egubakoitzean, hilak 19, Arriolan, 22:30ean.

## Ikastaroak

### ARETXABALETA

> **Areto dantzen ikastaroa**, Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izen-ematea eta argibideak Loramendi elkartearen edo 943 77 09 70 telefonoan.

### ARRASATE

> **Etxeko lanak eta ardurak gizonen eta emakumezkoen artean elkartrukatzeko tailerrak**, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:30era, urtariletik apiril bitartean. Emakumezkoen tailerretan elektrizitatea, iturgintza, brikolajea, pintura eta automobilen banaketa landuko da eta gizonen tailerretan joskintza, lissatzea, sukaldaritza eta garbiketa. Izen-ematea (2.000 pezeta) Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan.

### ELGETA

> **Aerobikeko monitore ikastaroa**, titulu ofiziala eta homologatua jaso nahi dutenei zuzenduta, Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta. Baldintzak: 16 urte beteta izatea eta eskola-graduatu edo DBHko 2. maila gaindituta izatea. Eskolak Elgetan izango dira, zapatuetan eta domeketan. Prezioa: 125.000 pezeta

Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuentzat eta 135.000 gainerakoentzat. Izena emateko epea otsailaren 5ean bukatuko da. Argibideak Debagoieneko kirol zerbitzuetan.

### ESKORIATZA

> **Autoexijentziari buruzko jardunaldiak** antolatu ditu Arizmendi ikastolak, urtarrilaren 16an, 18:00etan. *La falta de esfuerzo personal, un hándicap en el desarrollo de nuestros hijos/as* izenburuko hitzaldia emango da Alemaneko areto nagusian.

### BERGARA

> **Simon Arrieta zeramika taldeak** ikastaroa antolatu du otsailaren 5etik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, Zabalotegiko lokalean, 18:30etik 20:30era. Ikastaroak 5 hilabete iraungo du. Izen-ematea (5.000 pezeta, materiala barne) urtarrilaren 27a arte zabalik. Argibideak eta izen-ematea 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefonoetan.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Arrasateko Emakumeen Kontseiluaren** irudia aukeratzeko lehiaketa. Sari nagusia 100.000 pezetakoa izango da. Arrasatear batek aurkeztutako lan onenaren

tzat 25.000 pezetako akzesita egongo da. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da. Argibideak Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, 943 79 09 00 eta 943 79 41 39 telefonoetan.

> **XIV. Arrasate lehiaketak**: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

> **III. Arte Plastiko Lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure-Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak otsailaren 28a baino lehenago bidali beharko dira ondoko helbidera: Gure-Leku taberna. Zarugalde, 17 behea. 20500 Arrasate.

### PORTUGALETE

> **XV. Komiki Lehiaketa**. Nahi duten guztiek, inolako mugarik gabe, har dezakete parte, hala banaka nola taldeka, hau da, gidoilariak eta marrazkigileak batera dihardutela. Gaia librea izango da eta pertsonaia originalak izan beharko dira. Bi kategoria bereiztuko dira, zuri-beltza eta kolorekoa eta errotuluak euskaraz nahiz gaztelaniaz idatz daitezke. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Argibide gehiago Portugaleteko Udaleko Kultura Sailean, 94 472 92 20 zenbakian.

### URRETXU-ZUMARRAGA

> **Urretxu eta Zumarragako**

**Zintzo-Mintzo** euskaltzale elkarteak bi herri hauei buruzko ikerketa lan bat egiteko beka sortu du. Alde batetik, hizkera aztertzeko corpusa osatu beharko da; hau da, kantuak, ipuinak, istorioak, jolasak, lanbideak... eta, bestetik, hizkuntzaren inguruko azterketa egin beharko da. Azterketa honetan bi herriotako hizkera bere zabaltasun osoan hartuko da: fonetika eta fonologia, izenaren eta aditzaren morfologia, sintaxia eta hiztegia. Ikerketa lana euskaraz burutuko da eta lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da. Bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezetakoa izango da. Proiektua eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea otsailaren 28a arte egongo da zabalik. Eskabideak honako helbidera bidaliko dira: Zintzo Mintzo elkarte. Labeaga kalea, 12, etxeazpia. 20700 Urretxu. Aipua: Ikerketa beka.

## Deiak

### ARETXABALETA

> **Mendi irteera** domekan, hilak 14, Albeniz mendira, Zariaia mendi taldeak antolatuta. Irteera goizeko 8etan egingo da Zariaiko lokaletik.

> **Loramendi literatur lehiaketa** sari banaketa egingo da eguenean, hilak 18, udaletxe zaharreko aretoan, 19:00etan.



### MUSIKA

**BIDE ERTZEAN.** Talde tolosar honek kontzertua eskainiko du Arriola kultura elkarteko aretoan. British ukitua duen Power Pop talde indartsua osatzen dute Fran Iturbe, Karlos Arantzegi eta Joni eta Imanol Ubeda anaien eta hori erakusteko *Grisa* deitzen den diskoa kaleratu berri dute Gaztelupeko Hotsak disko etxearekin. Kontzertuan Espainia aldean oso kritika ona jaso duten *Badakit* eta *Lilian* moduko kantuak entzun ahal izango dira eta baita *Zure Minari* diskokoak ere.

**Noiz:** Egubakoitza, hilak 12. **Tokia:** Elorrioko Arriola aretoan. **Ordua:** 22:30. **Prezioa:** 500pta.





Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkartzetako batera.

BERGARAN, *Berrigararen* egoitzan,  
Irizar jauregian; Barrenkalea, 33an / 943 76 92 71  
(*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan;  
Otalora Lizentziaduna, 31n / 943 71 25 11

ARAMAION, Kintelena dendan;  
Nardeaga, 11n / 945 44 50 22

ARETXABALETAN, *Aretzagazetaren*  
egoitzan; Duranan / 943 79 86 21

## ESKER ONA

Dominika  
Unamuno Unzueta

Arrasaten hil zen  
2000ko abenduaren 30ean,  
90 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKELA

Dominika  
Unamuno Unzueta

('Pinpo'ren amama)

*Erreza izan zen zu maitatzea.  
Ezinezkoa ordea, zu ahaztea.  
Beti gurekin izango zara*



ARRASATEKO EZKER ABERTZALEA

## ESKELA

Felipa  
Arando Azurmendi

Balbino Larrañagaren alarguna

(Aratz Gomez euskal preso politikoaren amama)

*Nahiz eta agur esan behar  
beti gure artean egongo zara*



ARRASATEKO EZKER ABERTZALEA

## ESKELA

Milagros  
Arregi Akiso

Jose Maria Barrutiaren alarguna

Bergaran hil zen 2001eko urtarrilaren 2an, 71 urte zituela.

*Zure poza eta alaitasuna  
betiko gurekin izango dira..*

Etxera azken agurra ematera etorri zaretenoi  
eta elizkizunetan gurekin parte hartu  
zenutenoi eskerrik beroena ematen dizuegu




Zure alabak

## ESKER ONA

Jose Mari  
Lazkano Arriaran

Bergaran hil zen  
2000ko azaroaren 28an,  
69 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

Justo  
Egaña Muruamendiaraz

Bergaran hil zen  
2001eko urtarrilaren 8an,  
87 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Lorenzo Aranzabal Telleria  
Maria Lizarralde Alberdi

Lehen urteurreneko  
meza domekan,  
urtarrilak 14,  
13:00etan, Bergarako  
Santa Marinaran



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Juan  
Aristimuño Kortaberria

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urtarrilak 14,  
11:30ean,  
Osintxuko parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Hipolita  
Gallastegi Narbaiza

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urtarrilak 14,  
11:30ean,  
Begarako Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Jose Ramon  
Igarza Agiriano

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urtarrilak 14,  
11:30ean,  
Begarako Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Nicolasa  
Zurutuza Osoro

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urtarrilak 14,  
11:30etan,  
Begarako Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Ana Mari  
Ugarte Lizarralde

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, urtarrilak 13,  
19:30ean, Oñatiko  
Mikel Goiangeruaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Martina  
Arrazola Idigoras

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, urtarrilak 13,  
19:00etan,  
Oñatiko parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Maximo  
Uribe Iturbe

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urtarrilak 14,  
11:30ean,  
Osintxuko parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## JAIOTAKOAK

**Jorge Perea Martin**  
Abenduaren 17an, Eskoriatzan.  
**Jone Lopez Garcia**  
Abenduaren 20an, Oñatin.  
**Elder Goikoetxea Muñoz**  
Abenduaren 20an, Bergaran.  
**Lide Albeniz Arana**  
Abenduaren 20an, Bergaran.  
**Miren Etxeandia Larrinaga**  
Abenduaren 21ean, Aretxabaletan.  
**Mikel Gonzalez Da Silva**  
Abenduaren 21ean, Aretxabaletan.  
**Igor Madinabeitia Vico**  
Abenduaren 21ean, Aretxabaletan.  
**Miren Madinabeitia Vico**  
Abenduaren 21ean, Aretxabaletan.  
**Nora Freire Arzamendi**  
Abenduaren 22an, Oñatin.  
**Antton Galarza Gardoki**  
Abenduaren 26an, Gatzagan.  
**Paula Barrionuevo Sanz**  
Abenduaren 26an, Arrasaten.  
**Maddi Gutierrez Zenitagoia**  
Abenduaren 29an, Bergaran.  
**Daniel De Lucas Ruiz**  
Abenduaren 29an, Bergaran.  
**Martin Arrillaga Bengoa**  
Abenduaren 31n, Bergaran.  
**Xabier Arrillaga Bengoa**  
Abenduaren 31n, Bergaran.  
**Uxue Garin Balda**  
Urtarrilaren 1ean, Bergaran.  
**Lide Larrea Uribesalgo**  
Urtarrilaren 2an, Arrasaten.  
**Irati Etxebarrieta Altuna**  
Urtarrilaren 5ean, Eskoriatzan.

## HILDAKOAK

**Rafael Iñurategi Etxebarria**  
Eskoriatzan, abenduaren 20an,  
84 urte zituela.  
**Lorenzo Bernal Jauregi**  
Aretxabaletan, abenduaren 21ean,  
44 urte zituela.  
**Elia Rodriguez Martinez**  
Oñatin, abenduaren 21ean,  
64 urte zituela.  
**Eduardo Eguren Aranbarri**  
Antzuolan, abenduaren 23an,  
49 urte zituela.  
**Nicolas Lasagabaster Okina**  
Aretxabaletan, abenduaren 23an,  
94 urte zituela.  
**Andres Iriondo Zabaleta**  
Oñatin, abenduaren 24an,  
60 urte zituela.  
**Santiago Azkargorta Goenaga**  
Oñatin, abenduaren 24an,  
60 urte zituela.  
**Primitiva Errarte Arantzabal**  
Oñatin, abenduaren 25ean,  
75 urte zituela.  
**Manuel Gallego Blanco**  
Arrasaten, abenduaren 25ean,  
90 urte zituela.  
**Julian Elortza Jausoro**  
Aretxabaletan, abenduaren 28an,  
99 urte zituela.  
**Ricardo Errasti Azurmendi**  
Bergaran, abenduaren 29an,  
66 urte zituela.  
**Antonio Igartua Odriozola**  
Oñatin, abenduaren 30ean,  
80 urte zituela.  
**Magdalena Urbiztondo Ausmendi**  
Arrasaten, abenduaren 30ean,  
84 urte zituela.  
**Dominica Unamuno Unzueta**  
Arrasaten, abenduaren 30ean,  
90 urte zituela.  
**Jose Antonio Azkargorta Errasti**  
Antzuolan, abenduaren 30ean,  
63 urte zituela.  
**Ceferina Golti Arozena**  
Bergaran, abenduaren 31n,  
77 urte zituela.  
**Mari Karmen Igartua Elkorobarrutia**  
Oñatin, abenduaren 31n,  
52 urte zituela.  
**Milagros Arregi Akiso**  
Bergaran, urtarrilaren 2an,  
71 urte zituela.  
**Luis Alberdi Losada**  
Bergaran, urtarrilaren 2an,  
68 urte zituela.  
**Felipa Arando Azurmendi**  
Arrasaten, urtarrilaren 2an,  
86 urte zituela.  
**Victoria Aspiazua Iturralde**  
Bergaran, urtarrilaren 3an,  
89 urte zituela.  
**Antonio Díez Fernandez**  
Bergaran, urtarrilaren 4an,  
99 urte zituela.  
**Agustin Zugasti Iturbe**  
Eskoriatzan, urtarrilaren 4an,  
60 urte zituela.  
**Pedro Zufiria Gallastegi**  
Arrasaten, urtarrilaren 4an,  
68 urte zituela.  
**Begoña Arana Ariznabarreta**  
Bergaran, urtarrilaren 7an,  
70 urte zituela.  
**Carlos Alvarez Godoy**  
Arrasaten, urtarrilaren 7an,  
39 urte zituela.  
**Justo Egaña Muruamendiaraz**  
Bergaran, urtarrilaren 8an,  
87 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Alex Labaien eta Maite Toledo,**  
Antzuolan, abenduaren 31n.



**Uxue Garin Balda** izan da  
2001ean jaio den lehen bergara-  
rra. Gainera, Gipuzkoan jaio den  
lehen neska ere izan da. Guraso-  
ak oso pozik zeuden; izan ere,  
lehen neska gipuzkoarra izatear-  
ren, opari bat baino gehiago

jaso dute. Urtarrilaren 1ean,  
06:45ean, jaio zen Donostiako  
Arantzazuko Ama ospitalean.  
3,200 kilo pisatu zuen. Argazkian  
gurasoekin agertzen da: **Jorge  
Garin Alsua** irundarra eta **Amaia  
Balda Etxarte** donostiarra.



**Lide Larrea Uribesalgo** mondragoetarra eta ama, **Izaskun. Aita, Kepa  
Larrea,** donostiarra da. Lide Mondragoen jaio zen urtarrilaren 2an, eta  
2,900 kilo pisatu zuen.

**Agustin Arantzabal** futbolari  
bergararra abenduaren 23an  
ezkondu zen **Miren  
Zubiagirre**rekin, Donostian.  
Alde Zaharreko San Bizente  
elizan ezkondu ziren, eta  
Igeldoko jatetxean izan zuten  
bazkaria. Argazkian, bikotea  
Agustinen koadrilakoekin.  
Zorionak, bikote, eta urte  
askotarako!



**Paula Barrionuevo Sanz** mondragoetarra **Agustina Sanz** amarekin. Pau-  
la Arrasateko ospitalean jaio zen eta 4,250 kilo pisatu zuen. Gurasoak,  
Agustina eta **Francisco,** mondragoetarrek dira.




**Maialen Verguizas Arroitauregi** bergararra urtarrilaren 9an jaio zen  
Arrasateko ospitalean. Argazkian Arrate amamarekin duzue. Maialene  
3,900 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Jone** eta **Antonio** dira.



**Nora Valor Diaz** mondragoetarra abenduaren 23an jaio zen Arrasateko  
ospitalean, eta 2,440 kilo pisatu zuen. Ama (argazkian) **Mari Jose Diaz**  
da, bergararra. Aita, berriz, **Juan Valor** mondragoetarra.





## Umore giroan

David Peñalver

### TXORIXAK OSPA

Brauliok Patxiri:  
- Hi, bragetia itxi heike, txorixak ospa egingo dosk bestela.  
- Ez dok urrin juango arrautzak hapixan lagata!

### RAMBO

Seme batek aittari:  
- Aitta, kalia "Rambo" deitzen doste.  
- Ba hori esaten dotsue- nekin berba egittera noia.  
- Ez, aitta! Hau neregerria da!

### ZAKIL USAIÑA

Bi emagaidu igogailluan:  
- Hi, fñemen zakil usaiña jaon, ez?  
- Ezin jonat korroskada- rik bota ala?

### LEHEN OPERAZIÑUA

Ospitalian, operau aurre- tik:

- Mediku jauna, akojo- nauta najaok, hau lehenen- go ebakuntzia be bada eta...  
- Hori ez dok ezer! Ako- jonauta ni najaok, atzo emon josten zirujau lana ETT batian eta.

### AUTOBUS BILLA

Bergarar bat antxitxika autobusa harrapatzeko, laprast egin eta potzura jau- si da. Begira egon dan atxa- baltar batek halaxe:

- Hi, takarradan ezin eta oin igarixan harrapatzia gura dok ala?

## Hitz gurutzatuak

Luma

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									


### Ezker eskuma

1/ Mendigoizalea. 2/ Araudiak. 3/ Belar idor. Hosto. 4/ Nafarroako urte- gia. Ez emea. Tona. 5/ Zein unetan. Argona. Tantalioa. 6/ Errepikatuz go- rotza. Aroa. Nitrogenoa. 7/ Ez zuzen. Aluminioa. Gironako ibilgailuetan. 8/ Nitrogenoa. Irudi geometrikoa. 9/ Landare-mota. Iridioa. Txakur. 10/ Es- partinak. Urrea.

### Goitik behera

1/ Tristezia. 2/ Oldarra. Herri Batasuna. 3/ Lasai. Eguzkia. 4/ Daukat. Za- aude. Röntgen. 5/ Arnas ezak hila. Kontsonantea. partitiboaren ezauga- ria. 6/ Herri hizkeran, zer. Detektagailua. 7/ Abuztua. Potasioa. 8/ Italia- ko dirua. Lehenengoa. Har ezak!. 9/ Eako. Tona. Nahia. 10/ Frantziako he- go-mendebaldeko lurralde historikoa. Uranioa.

## Bila-bila 7



## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Non dago behi gehien?

**A**spaldian, 'behi zoroak' direla eta, badabil nahikoa kontu. Ez dakigu bailaran 'behi zororik' dagoen edo ez, baina behiak egon badaude. Asmatuko ote zenu- ke Deba arroko zein herritan dagoen behi gehien kilome- tro koadroko?

- Antzuola?
- Aramaio?
- Oñati?

**Erantzun zuzena:** Antzuola (38,7 behi kilometro koadro- ko); Aramaio (26,5) eta Oñati (11,9).

### Soluzioak



**Ezker eskuma**  
1/ Mendizalea. 2/ Arautegiak. 3/ Las- karretua. 9/ Ihi. Ir. Or. 10/ Abarak. Au. 6/ Ka. Aldia. n. 7/ Oker. Ai. Gi. 8/ N. to. Orri. 4/ Esa. Arta. 1. 5/ Noiz. Ar. Ta. Nasai. Ekia. 4/ Dur. Zera. R. 5/ Itoa. R. 8/ Rik. 6/ Ze. Radarra. 7/ Agorria. K. 8/ Lira. A. To. 9/ Ear. 1. Gura. 10/ Aktania.

**Goitik behera**  
1/ Malenkonita. 2/ Erasoak. HB. 3/ Nasai. Ekia. 4/ Dur. Zera. R. 5/ Itoa. R. 8/ Rik. 6/ Ze. Radarra. 7/ Agorria. K. 8/ Lira. A. To. 9/ Ear. 1. Gura. 10/ Aktania.

## Horoskopoa

Berenize

### ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Hasarrealdiak kontrolatu behar dituzu, bestela, edozein txikierarengatik gau- zak zaildu egingo zaxkizu. Gogora ezazu gauzak interes handiarekin egi- ten hasten zarela, baina segituan uzkuzten zarela.

### TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Zuhurtasunez jokatzan baduzu, lagune- kin egun onak igaroko dituzu. Aprobetxa itzazu une horiek gertu dau- kazun adiskideren bati laguntzeko. Azkenaldiko festekin zure osasuna kal- tetu egin da, zain zaitez.

### GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure nagusia, Merkurio, Acuariusen dago; ondorioz, zure ahalmen intelek- tuala handitu egingo da eta gauza berriak ikasteko gogo handia izango duzu. Ez utzi zure emozioak alde bate- ra.

### CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Hilaren 9an eklipse bat egon zen zure zeinuan, eta egun berean, ilargi bete- a. Horregatik, oraindik erromantikotasuna sentituko duzu. Aurki ezazu bikotekide bat berarekin une atseginak pasatze- ko.

### LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Laneko eta familia arteko arazoak edo- zein unetan ager daitezke. Zuhurtasunez jokatu behar duzu; horregatik, ekintzetara jo baino lehen- go, hiru arte kontatu, gutxienez. Lagunek emango dizute behar duzun babesa.

### VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Parranda asko bota ondoren, lana pila- tu zaizu eta orain lan bikoitza egin beharra daukazu. Oso arduratsua zare- nez, lortuko duzu guztia garaiz buka- tea. Ez zaitez horren ezkorra izan.

### LIBRA

irailak 23-urriak 22

Zain ezazu dirua orain igaroko dituzun egunak ez dira eta oso onak izango. Astekabeko gastuak izango dituzu. Ez pentsatu diruaz guztia lor daitekeenik, sentimenduak ez dira erosten eta.

### SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Bakean has ezazu urtea, eta ezkutuan dagoen altxorra aurkituko duzu. Borrokatzeko daukazu gaitasunaren- gatik merezi duten helburu batzuk lor- tuko dituzu. Izarrak zure alde daude.

### SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Une egokia da zure bikotekidearekin harremana hobetzeko. Bizitzako garai berri batean sartu behar zara eta alda- keta bat sumatuko duzu. Ondorioz, orain, bizitza beste filosofia batekin hartuko duzu.

### CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Saturnok Taurusengandik babesten zaitu. Eguzkia zure zeinuan dago. Egun txarrak alde batera gelditu dira, horre- gatik, ezkutuan dituzun nahi material eta espiritualek bizimodua hobetuko dizute. Lagunekin haserrealdi batzuk izan ditzakezu. Zorionak!

### AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Une egokia da zure bihotzeko ateak irekitzeko; aprobetxa ezazu lagun gehiago egiteko, baina antzinako lagun bat ager daiteke hartu nahi duzun bidea oztopatzeko.

### PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Venus zure zeinuan dago; horregatik, zure sentimenduak, amodio kontuan, oso oparoak izango dira. Bikotekiderik baduzu, berarekin oso une egokiak iga- rko dituzu; bestela, bila ezazu bat.

## Ibilaldiak

Elosu-Plazentzia eremu megalitiko

Kapirixo elkarte

# Deskargatik Karakaterainoko mendilerroa

HISTORIAURREKO EREMUA: TRIKUHARRIAK ETA TUMULUAK

**T**rena bidaiariz beteta zihuan. Gehienengan errespetuzko begiradak sentitzen zituen Ataungo apaiz txikiak. Bere anaia, bitartean, lasai asko zihuan bere aldamenen jarrita. Zumarragan trena utzi, eta pare-parean zegoen geltokira joan ziren beste tren bat hartzera. Han zegoen zain askoz txikiagoa, estuagoa, zena. Tren horretan ere jende asko, eta maila guztietakoa. Ordu erdira, egunsentiak egunari leku egin zienean iritsi ziren Bergarako Goiko Estaziñora. Trena utzi ondoren, eta Eugenio Arrillaga lagun gidari zutela gorantzako bidea hartu zuten, Elosurantz.

Oinez igo beharreko bidean herriko azokara zihozten emakumezko baserriak agurtu zituzten. Pauso azkarrez, ordubeteko luzetxoan iritsi ziren Gorla ingurura eta handik, minutu gutxitan, Santuxora. Hemen, lepoan, hego haizeak gogor jotzen zuen. Harainoko bidea egin ondoren, gure gidari bergararrak jakinarazi zien oraindik dezentte geratzen zela lehendabiziko trikuharriraino iristeko.

Horrela, edo antzera, gertatu zuten 1920. urtean Joxe Miel Barandiaranek eta bere anaia Bergarara eginiko bisita.



Elosu-Plazentzia eremu megalitikoan aurki dezakegun tumulueta bat.

## Egin beharrekoak (Eremuaren erdia)

**Ilbailuan Santuxora igo daiteke. Hemendik orduerdian Agerreburruraino iritsiko gara. Goian, bidearen ezkerretara, dago Agerreburu trikuharria. Hau da lehenik bisitatuko dugun trikuharria. Oraindik ere, Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenak eginiko indusketetan (1921), agerian utzi zituzten ganberako harlauza batzuk ikusten dira.**

**Trikuharriaren bestaldean aurkituko dugu jarraitu beharreko bidea. Beti goialdetik ibili.**

**Ikusteko aipagarrienak: Keixetako Egiya Hegoaldekoa (tumulu handia eta ganberako izugarriko harlauza ikusten dira). Aprobetxa daiteke Urola aldeko parajeak behatzeko. Irukurutzeta: trikuharri honen tumuluak izugarriko diametroa du; inguru honetan, maiatzaren lehen domekan erromeria ospatzen da.**

**Aizpuruko-Zabala: hona iristeko beste bide bat hartu behar dugu. Kurutzebakar utzi eta Osintzurako bidea hartu; gutxira dago trikuharria den eraikina. Ganberako hiru harlauza gordetzen ditu. Gorantz bueltatu beharrean, beherantz jarraituko dugu Atsedean Txaboleta arte eta, hemendik, bidea jarraituz, mendi magalaren erdialdetik, Santuxora doan bidea hartuko dugu abiapuntura iristeko.**

kitzen diren beste antzekoak eraikin desberdinez daude osatuta. Eraikin hauen tipologia ez da beti bera izaten. Batzuk trikuharriak dira. Hauek bere baitan harlauza handiz jasotako ganberatxo bat izaten dute, non hildakoen gorpuak uzten ziren. Ondoren, trikuharria harriz eta lurrez (tumulu) estaltzen zen menditxo txiki modukoa osatuz. Hemendik dator trikuharrien toponimian osagarri gisa maiz azaltzen zaizkigun "muino" eta "hegia" hitzak: Egizabalgo Muñoa, Keixetako Egiya, e.a. Beste eraikin batzuk tumulutzat jotzen dira, ez dute eta euren baitan trikuharriak gordetzen edo, oraingoz, ez da, behintzat, azaldu edo aurkitu. Bata zein bestea garai

berekoak dira: Neolito aroko bukarakoak edo Brontze aroko hasierakoak (Eneolito) dira, hau da, orain, bost mila bat urte edo izango dituzte.

Eremuko eraikinak seinalizatuta daude: panel handien bertako ezagarriz gain, azal dutako materiala ere badakarte. Eta eraikinaren ondoan, 20 bat zentimetroko euskarrian beste plaka bat, zeinak trikuharria identifikatzen duen.

Eraikina errespetatu behar da. Harriak ez mugitu edo lekuz aldatu. Zaborrik ez bota edo ez surik egin. Inguru ez arakatu: legeak debekatzen du eta, gainera, alferrikako lana izaten ez da eta ezer aurkitzen.

### Eremu megalitikoaren nondik norakoak

Elosu-Plazentzia eremu megalitiko Deskargatik Karakaterainoko mendilerroan dago kokaturik. Trekutzen hasi, Santuxotik oso gertu dagoen Egizabalgo Muñoa alde batera utzi, eta gero (beste eremuko kokapenetik nahiko aldenduak, lehendabiziko bi hauek) Agerreburrura igo behar gara. Hemendik abiatuta, mendilerroaren gainaldean, uren banalerroan aurkituko ditugu geratzen diren beste hamabost eraikin megalitiko Karakateraino iritsi baino lehenago. Hemendik aurrera, ibilaldia luze egiten bada ere, erraz egiteko modukoa da. Hala ere, komeni da bi ekinalditan egitea. Ibilaldian ikusiko ditugun parajeak Joxe Miel Barandiaranek eta ikusi zituztenen besteakoa izango dira. Hemen ere, bertakotzat jotzen dena pinu desberdinez izan da ordezkaria. Alde horretatik, behintzat, erakargarritasun gutxi eta, askotan hori da txarrena-galera galantak eremuko eraikin megalitikoentzat: pinudien ustiaketa lanetan erabiltzen diren makinek kalte handiak eragin dizkiete zenbait eraikini.

Hona hemen, segidan, goiz parte luzetxo batean historiaurreko eremu hau bisitatzeko datu eta egin beharrekoak:

### Datu interesgarriak

Historiaurreko eremu hau eta Euskal Herriko beste zonaldeetan aur-

## Ardoaren txokoa

Mikel Garaizabal / Sumelierra eta enologoa



# Naturaren eragina ardoan

LURRA, KLIMATOLOGIA ETA MAHATSONDOA

**A**urrekoan, Gabonetan hainbeste edaten diren ardo apardunei buruz jardun genuen. Aurrerantzean, ostera, ardoaren kultura aberatsa zuenganatzea da nire helburu eta nahia. Kontuan izan behar da ardo oso barneratuta dagoela euskaldunon kulturaren eta, gainera, ziurtatuta dago, neurrian edanez gero, osasungarria dela. Oraingoan ardoari buruzko sarrera orokor batekin hasiko gara. Ardoaren ezaugarri nagusiei buruz jardungo dugu: lurra, barietateak, klimatologiak eta gizonaren eraginak emango dizkigute ardo baten ezaugarriak. Goazen, bada, banan-banan:

1. Lurra. Mahatsondoaren euskarria da eta, beraz, bizitzeko sustantziak eta ura emango dizkio mahatsondoari.

Ardo ezberdina lortuko dugu lurra mahatsondoari ematen dizkion sustantzien arabera. Mahatsondoendako lur pobreak (baina, gabezia gabekoak, drenaje onarekin) eta partikula lodiak dituzten lurra dira egokienak.

Mahatsondoa lur guztietara moldatzen da, baina hazteko zailtasunak ditu oso lur hezeetan; hau da, materia organiko deskonponatuta duten lurretan.

2. Barietatea. Gaur egun, 5.000 mahats barietate daude. Hauetatik, 100 batek daukate enologikoki garrantzia eta hauen erdia bakarrik erabiltzen dira gaur egun ardo egiteko. Barietateak ardoari ezaugarri eta pertsonalitate berezia emango dio. Adibidez, ez da berdina Arabako Errioxan ardo goiztiar barietatearekin egindako ardo edo Cabernet Sauvignon-ekin eginikoa.

3. Klimatologia. Mahatsondoa landare gogorra da. Negu-

ko temperatura baxuak eta udako bero handiak jasaten ditu. Uta mantenuz gutxi behar du landarea da.

Latitudeak eta altitudeak eragina dauka klimatologian eta ondorioz, mahatsondoan. Bestalde, esan beharrik ez dago, baina klimak eragin zuzena dauka mahatsondoan. Horregatik, urteko urterako ardo ezberdinak izango dira, klimak mahatsondoan zelan eragin dion arabera. Horrela ulertzen da urtearen garrantzia.

**"Jeneralean, mahatsondoak 30-50 gradu arteko hemisferio bietan kokatzen dira, temperatura epelak dituzten lurraldeak direlako"**

Jeneralean, mahatsondoak 30-50 gradu arteko hemisferio bietan kokatzen dira, temperatura epelak dituzten lurraldeak direlako. Esan beharra dago ardo onak ematen dituzten lurraldeetan negu hotz eta uda epel edo bero samarrak izaten dituztela.

4. Gizakia. Berak erabakitzen ditu praktika kulturalak eta enologikoa. Kontuan izan behar da gizakiak ezin dituela lurra eta klimatologia aldatu. Horregatik, enologoak, lurralde bateko lurra eta klimatologia ikusiz, jakin dezake zer ardo mota aterahi, edo ahal, duen.

### ZURE GALDERA

## Mahats txarretik ardo onik atera daiteke?

**E**nologoak ez gara magoak. Produktu guztiak bezala, lehengaiak txarra bada, ezin izango dugu produktu onik atera. Egin dezakegunak da geure borondate eta jakinduria guztia jarri, eta teknologia egokia erabili, produktu erakargarria lortzeko. Berdin gertatzen da beste hainbat ogibidetan: sukaldean, altzairugintzan, arozgintzan...

Zuek ere, irakurleok, egin ditzakezue galderak. Zuen kezkei erantzuteko naukazue. Bidali galderok honako helbide hauetako batera: goienkaria@goiena.com edo Barrenkalea, 33 • 20570 Bergara.

# Goiena Telebista

## Telebegi


### Partea

**O**rtu bakoitzaren inguruan daukagu hitzordu bat, eta gosea asetzen dugun bitartean, "espiritua" ere elikatu gura izaten digute albistegietako berrien bidez.

Gabonetako ikuskizunak desagertuaz bat, berriro ere kate bakoitzaren "buke insignia" eta daukan ideologiaren erakusleho nagusi egingo dira aktualitatezko programa hauek. Beraz, "Urteberri on"-etik "Hauteskundeak noiz"-era dagoen garai honetan telebista-albistegiak dira arma ezin hobek beraien mezuak bidaltzeko.

Oinarrian, aukeratzera ematen zaizkigunak (jantokietan menua bezala) oso antzekoak dira. Formalki dinamikoak eta "azken ordua"-ri lotuak. Edukiari dagokionez, agintean dauden botereen nagusitasuna erakutsiko dute. Eta, hori gutxi balitz, gizarte barruko beste elementuen joku-eremua eta jarraitu beharreko arauak zeintzuk diren begien bistan jarriko dizkigute. Beste modu batera esanda, albisteen atzetik, erdi ezkutuan, sumatzen diren baloreen hierarkia, subjektu politikoak eta gaiak dira kontuan hartu beharrekoak.

Kateen arteko desberdintasunak, funtsean, platerak prestatzerakoan erabiliko diren elementuetan baino, albisteen barruko eta hauen arteko ordenamenduan, kausa-ondorioen eta kokapen geografiko eta politikoan daude. On egin.



Edorta Arana

### Ordu aldaketak

Albistegia, birritan, 20:00etan eta 20:30ean

### Albistegia, birritan

**D**atorren astetik aurrera, egunero birritan emango da *Berriak* saioa, 20:00etan eta 20:30ean. Hortaz, albistegiaren ondorengo gure eguneroko programazioa 21:00etan hasiko da aurrerantzean. Era berean, *Gatza eta berakatza* sukaldaritza programak ere emisio ordua aldatuko du: datorren astetik aurrera, 19:45ean hasiko da *Gatza eta berakatza*, *Berriak* saioa baino lehen, hain zuzen. Kontuan hartu, beraz, aldaketa guztiok!




### Alkatearekin berbetan

Eguaztenean, 21:00etan

### Xabier Zubizarreta, Mondragoeko alkatea

**X**abier Zubizarreta Mondragoeko alkatea izango da datorren asteko *Alkatearekin berbetan* saioko gonbidatua. Herriko komunikabideetako kazetariak hartuko dute parte solasaldian, eta Arrasateko gorabeherei emango zaie errepasoa. Ohi bezala, ikusleok ere izango duzue alkateari zuen kezak egiteko aukera. 712393 telefono zenbakira deituta har daiteke parte saioan.



### Non-Zer: eguneroko agenda

Egunero, 20:30ean

### Eguneroko agenda GOITBn

**D**atorren astetik aurrera, gure bailarako diskuzion guztien berri zehatza izango duzue hemen, GOITB-n. Zinema, antzerkia, musika emanaldiak... Debagoienean ikusgai dauden emanaldi guztien berri zehatza jasoko duzue, egunero, *Non-Zer* mikrosaioan. 20:30ean izango da hori, *Berriak* albistegiaren ondoren.

Ez da izango aisialdia hizpide duen saio bakarra. Aurrerantzean, egunero, 21:00etan, *Sarrera doan* programa berria ikusteko aukera izango duzue. Zinema estreinaldiak, asteburuetarako hitzordu kulturalak... Eguenetan, 21:00etan.



## Asteko programazioa / Urtarrila: 12-19

EGUBAKOITZA 12	ZAPATUA 13	DOMEKA 14	ASTELEHENA 16	MARTITZENA 17	EGUAZTENA 18	EGUENA 19
13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Saioen errepikapena</b>	13:30 <b>Asteko saioen errepikapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>
13:40 <b>Gatza eta Berakatza</b>	Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Erreportajea, Soinuz Blai, Astebete	Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Erreportajea, Soinuz Blai, Astebete	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>
13:50 <b>Erreportajea: Gatzagako Txondorra</b> (errepikapena)			13:50 <b>Astebete</b> (errepikapena)	13:50 <b>Goienasport</b> (errepikapena)	13:50 <b>Xeleberri</b> (errepikapena)	13:50 <b>Alkatearekin berbetan</b> (errepikapena)
20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b>			19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>
21:30 <b>Astebete</b>			20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>
22:00 <b>Soinuz Blai</b>			20:30 <b>Non-Zer</b>	20:30 <b>Non-Zer</b>	20:30 <b>Non-Zer</b>	20:30 <b>Non-Zer</b>
22:30 <b>Gatza eta berakatza</b>			20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>
			21:00 <b>Mondrasport</b>	21:00 <b>Xeleberri</b>	21:00 <b>Alkatearekin berbetan</b>	21:00 <b>Sarrera doan</b>
						21:30 <b>Soinuz Blai</b>

## Barruko kontuak

### ARRAKASTA ITZELA GABONETAKO KONTZERTUAK

**J**oan den urteko abenduaren 23an egin zen Gabonetako kontzertua Bergarako Udal pilotalekuan. Ikuskizunean, besteak beste, Bergarako orfeoak eta Aritzeta eta Goikobalu abesbatzek hartu zuten parte. Hantxe izan zen GOITB ere. Ekitaldia osorik grabatu eta joan den astean eskaini genizuen.

Erabateko arrakasta izan zuen emanaldiak.

### REALA-ATHLETIC DERBIA GOITBn

**P**artidu garrantzitsua jokatu dute domekan Athleticcek eta Realak Donostian. GOITB, zelan ez, hantxe izango da. Lantalde berezia bidaliko du Goiena Telebistak Anoetara. Astelehenean, *Goienasport* saioan, izango duzue hantxe jasotakoaren berri zehatza: bailaratik joandako zaleen arteko giroa, jokalariren iritziak,... 21:00etan izango da hori guztia *Goienasport*en.

## Kamera aurrean



"Onartezina da gure bailarako lan-istripu kopurua"

**DIEGO SAGARNA** | ELAko lan-osasunaren arduraduna "BERRIAK" (2001-1-8)



"Hemen jaten dugun okela kontrolpean dago"

**IÑAKI GERENABARRENA** | Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza sailburua "BERRIAK" (2001-1-10)

## Atzeskua

MAIDER OSA

# Oihana Elortza/Kazetaria

**D**efini ezazu zure burua.  
 — Ordenatua, zorrotza, arduratsua, kalezalea, umore onekoa (baina, jenio txarra ere badut)...  
 — Zure nagusiaren (Andoni Aizpururen) akats bat eta bertute bat.  
 — Bertutea, umorea.  
 Akatsa, berriz, ez dela isiltzen (ja, ja).  
 — Zer ez duzu sentitzen bertatik bertara?  
 — Edozein arrazoi dela medio, bertatik bertara egon ezin dutenak.

— Kazetari ez bazina?  
 — Seguraski, abokatu.  
 Betidanik izan dut nahiko argi kazetari izan nahi nuela, baina horrela ez balitz, abokatu. Esparru zibila landuko nuke: herentziak, dibortzioak...  
 — Telebistan egin duzun hankasartzerik potoloena?  
 — Azkena atzo bertan egingo nuen, baina potoloena, Internet-eko txokoa egiterakoan, chat-a eta foroa nahastea izan zen.  
 — Zeinek ez du lekurik zuen programan?

— Denek dute lekua, denak sartzen dira zakuan.  
 — Zer du ETBk hedabide lokalek ez dutena?  
 — Ez dut sekula telebista lokal batean lanik egin. Oñati Irratian kolaborazioak egin nituen hiru bat urtean, eta idatzi ere ez dut egin herri hedabidetan. Beraz, ez dut konparatzerik. Dena dela, *Bertatik Bertara* saioan lan egiteak nolabaiteko gertutasuna ematen du. Talde-lana da gertutasun eta arrakasta horren giltza.  
 — Zer ekarri dizute erregeek?  
 — Aurten, sekula baino hobeto portatu dira bai Olentzero eta baita erregeak ere, baina nezeser bat ekartzea ahaztu zaie. Orain, beherapenetan erosiko dut.  
 — Olentzerok inoiz egin dizun oparirik politena?  
 — Aurtengoa. Etxean konponketak egin ditugu, eta polita izan da: harlauzak aukeratu...  
 — Amets bat?  
 — Oraintxe letxe bizi-

tzea, gustura bizi naiz eta. Nor bere buruarekin gustura bizitzea.  
 — Loterian jokatu duzu?  
 — Bai, jokaturakoa bueltan etorri zait. Ez nuen askorik jokatu, eta ez dut askorik kobratzeko. Beharbada, afaltzera joateko beste.  
 — Zerk tristetzen zaitu?  
 — Alaia naiz, gutxitan egoten naiz triste. Hala ere, nahi dudana betetzen ez denean, gertatzen ez denean, kosta egiten zaidanean... pena sentitzen dut. Bestetan, aldiz, nire buruari helmuga hori jartzen diot, eta zorrotasun maila horrekin gogorrago saiatsen naiz helmugara iristen.  
 — Eta poztu?  
 — Eguneroko ohitura txikiek pozten naute.  
 — Zelan hasi duzu urtea?  
 — Oso ondo. Urteberri egunean jai izan ondoren, martitzenean lanera joan nintzen, eta beraz, urte osoan lana izango dut, urtea lan eginez hasi dut eta.



**“Oraintxe letxe bizitzea da nire ametsa, orain gustura bizi naiz eta”**

**“Kazetari ez banintz, seguraski abokatu izango nintzateke”**

**“Gure programan guztiek dute tokia, denak sartzen dira zakuan”**

► Oñatiarra / 27 urte / ‘Bertatik Bertara’n erreportaria

## AIPAGARRI



**ASIER ALTUNA ‘KIXI’**  
 Bergara/Zinemagilea

Korrika 12-ko bideo-kliparen bidez du Telmo Esnal zarauztarrarekin batera. Fermin Muguruzak egin duen kantuari irudiak jarri dizkiote, datorren udaberrian izango den Korrika 12 saltzeko. *Mundu bat euskarara bildu* izango da martxoaren 29an Gasteizen abiatu eta apirilaren 8an Baionan amaituko den Korrikaren 12. aldiko leloa.



**MIKEL ETXAGIBEL**  
 Mondragoe/Ekonomilaria

Donostiako Zinemaldiko gerente kargua hartu du aste honetan. Orain arte, Guggenheim Museoko Komunikazio eta Garapen arduraduna izan da eta lehenago ETBn ibilia da. Zinemaldiko zuzendari izango den Mikel Olaziregiren kargua betetzera dator.

## Pabilioi berria Bergarako Industrialdean



# Altuna

**BASERRIKO TRESNEN SALMENTA ETA KONPONKETA**

Labegaraieta • Telleria kalea, 17. Pab- A01/A02/A03 lokalak • Tel./Faxa: 943 76 12 11